Laugarren kapituluan,

Transferentzi arruntak %3,08ko murrizpena aurkezten dute, ondoren aipatzen ditut udalak egiten dituen transferentzia garrantzitsuenak, gizarte larrialdietarako diru laguntzak, baliabiderik beko pertsoneri diru laguntzak, gizarte arloko babesak eta tratamendua, Brankako apartamendu tutelatuei diru laguntza, musika patronatua, kirol patronatua, urola kostari transferentziak, merkataritza eta turismoa, euskararentzako diru laguntzak, kultura eta festetarako diru laguntzak, nazioarteko elkartasunei, berdintasuna eta gazterari, erreka garbitzeko diru laguntzak, urkomeri ekarpena, transferentzi alderdi politikoei, enplegua sustatzeko diru laguntzak.

2015eko aurrekontuarekin alderatuta aldaketa nabarmenenak honako hauek dira:

Mankomunitatearen transferentziak 62.711,20ko igoera suposatuko du. Hemen ere aurrekontuan errore txiki bat zegoen eta emendakinen bitartez konponduko dugu.

Euskararentzako diru laguntzak % 4ko igoera izango du.

Gizarte Larrialdietarako diru laguntzetara 25.000 € gehiago zuzenduko dira.

Brankako apartamenduentzako diru laguntzak %8,33ko igoera izango dute.

Enplegu sustapenerako 30.000 €tako programa berria sortzen da, Mankomunitatearekin elkar lanean ekonomia eta ekintzagintza ekimena bultzatzeko diru laguntzak zuzenduko dira.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Udalerriaren erakunde autonomoen transferentzietan alde batetik San Juan Egoitzari egiten zitzaion transferentzia desagertzen da, 206.452€ horregatik islatzen du batik bat laugarren kapituluaren murrizpena, bestalde Musika patronatuari egiten zaion transferentzia berdin mantenduko da eta kirol patronatuko transferentziak %20,93ko igoera izango du, konkretuki 76.913 € gehiago jasoko ditu.

Zorpetzeari dagokionez, Zumaia udalak Bankuarekin hiru mailegu ditu 2016ko urtarrilaren 1ean zorra 2.924.827,94koa izango da.

2016rako urteko amortizazioaren ondoren 2017ko urtarrilaren 1ean 2.599.469,96 €tan geratuko da.

Hirugarren kapituluak Zumaia udalak Bankuarekin 15 urtera sinatu ziren hiru maileguen interesei aurre egiteko 2016ko aurrekontuak 26.086 € jasotzen ditu.

Bederatzigarren kapituluaren 183.743 € jasotzen dira udalak Bankuarekin dituen maileguen amortizazioari dagozkionak.

Maileguen amaierako data 2030ko martxoaren 30a da.

Jarraitzen dut kapital gastua azaltzen,

Alkateak:

Seigarren kapituluak, Inbertsioetan, ez doa seigarren kapitulu honetan, baina hasiko naiz komentatzen aurrekontu hauetan jasotzen dugula enplegu sustapena eta ekintzailatza bultzatzeko partida berri bat 30.000€koa izango dena,

Jakin badakigu udalak ez dituela enplegu sustapenaren eskumenak edo mankomunitatean delegatuta daukala, mankomunitateari egiten zaizkion diru ekarpenetan partida inportante bat enplegu sustapenera bideratuta doa, aurten 112.000€koa usten dut dela, guk hortaz aparte eta gu geure pixkat gai honen inguruan gogoz nahi dugulako heldu partida bat sartuko dugu 30.000 €koa eta mankomunitatearekin batera gure asmoa da, nolabait, martxan jartzea informazioa edo bilerak, programa zehaztuko dugu baina mankomunitatearen eskutik enplegu sustapena eta ekintzailatza bultzatzea da, zeren, iruditzen zaigu azkenean dela zerbitzu sozialetako inbertsio bat hartu litekeela enplegu sustapena, azkenean, ahalik eta jende gutxien gizarte zerbitzuetako zerbitzuetara jotzeko garrantzitsua dela enplegua sortzea ez? Eta horren inguruan gure lehen aurrekontu hauetan partida berri hau sartuko dugu.

Bestetik, seigarren kapitulu honetan inbertsioetan pixkat jaso dugu, oinarria hartu dugu hauteskundeetara aurkeztu ginen programa izan dugu ardatz eta bestetik ere bai, gaur egun martxan daukagun plan estrategikoan zazpi bilera horietan, lehen bilera horietan jaso diren hainbat ekarpen iruditzen zaiguna gure programarekin puntu askotan bat egiten dutela, hortik sortutako aurrekontuak dira hauek eta guk indarra eman diona izan da eraikin publikoetako partida inportanteak jarri ditugu, adibidez, eraikin munizipaletan aurreko 2015eko aurrekontuetan 10.000€ jasotzen ziren eta guk %420ko igoera planteatzen dugu, 50.000€

Bestetik fiolatoan ere inbertsioak aurreikusten ditugu nahiko utzita dagoelako eta lan baldintzak ez zaigu iruditzen ematen direla udaltzaingoentzat, eta hor ere 20.000€ko partida jartzen dugu eta gero aipatzekoa 2014ean plenotik onartu zen San Jose kaleko plan berezia 11 puntuetan oinarritutakoa eta zerrendatuta lehentasunez zerrendatutako 11 puntu horiek eta lehen puntu horretan jasotzen da igogailua martxan jartzeko konpromisoa ez? Epe batzuek markatzen ziren hor,



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

plana onartu eta handik bi hilabetea proiektua idatziko zela eta gauza hori dena geldirik egon da azken urte hauetan eta guk lehentasuna eman diegu gure programan ere hala jaso genuelako eta partida inportante bat aurrekontuetakoa irisgarritasuna izendapena 350.000€ko partida jarri dugu eta gero proiektu idazketarako beste partida bat igogailu horretarako.

Gure asmoa da 2016an lehentasuna ematea hirigintza departamenduan gai honi eta baliabide asko edo energia asko zuzenduta joango dira hau martxan jartzean, ez?

Eta bestetik kaleen mantenimendua eta mobiliario urbanoa, larretxo auzoan ere irisgarritasuna hobetzeko partida bat doitu dugu azterketa sakon bat egiteko, nola hobetu litekeen irisgarritasuna auzo horretan eta gero bestetik bide publikoetan ere bai %63ko igoera bat ematen da 150.000 € arte, ikusten dugulako eta herritarren aldetik jasotzen dugulako behar bat gure kaleak, espaloiak, jardinak, itxuratzeko behar bat ikusten dugu eta pixkat gure aurrekontuak horretara bideratuta doaz edo hori da ardatz nagusiak hor dauzkagu, ez?

Eta besteak beste, udaletxeko sarrera ere bai kurioa da irisgarritasunari buruz hainbeste hitz egiten da gizarte honetan eta udaletxea da udalaren eraikin garrantzitsuena eta sarrera printzipalak irisgarritasun aldetik gabezi handiak dauzka eta hori ere hobetzeko partida bat jarri da eta pixkat horiek dira kapitulu seigarren honetan, eta zazpigarrena igual M. Cruzeri hitz ematen diot,

M. Cruz Alvarez (EAJ-PNV): Zazpigarren kapitulan kapital transferentziak % 512,82ko igoera izango dute, udalak organismo autonomoei 100.000€ gehiago zuzenduko dizkie inbertsioetarako.

Musika patronatuaren kasuan transferentzia 4.500 €tako izango da eta kirol patronatuaren kasuan udalak 115.000€ bideratuko dizkio inbertsioetarako 2015ean baino 100.000€ gehiago.

Zortzigarren kapitulan finantza aktibotan aurreko urtean bezalaxe 8.000€ aurreikusten dira langileei kontsumorako maileguak emateko.

Amaitzeko eta laburbilduz aurkeztutako aurrekontutik ondorengo ondorioak ateratzen dira:

Aurrezki gordina 2016an – 1.787.781 € izango da 2015ekoekin alderatuta %41,80 gehiago izango ditu

Aurrezki garbiak 2016an – 1.577.952 € izango da 2015ekoekin alderatuta %25,16 igoko da.

Zorpetzea % 1,72koa izango da eta 2015eko hasierako aurrekontuak ez zuen zorpetzerik jasotzen

Gero Musika Patronatuari dagokionez zerbait aipatzen joan gara baina hauek bai laburbilduz musika patronatuaren aurrekontua 179.590 €koa da,

Udalak transferentzi arrunta 175.090 €koa izango da eta kapital transferentzia 4.500 €koa, udalak totalen musika patronatuari 179.590 €ko ekarpena egingo dio.

Kirol patronatuaren kasuan berriz, aurrekontua 1.227.810 €koa da. Udalak bi transferentzi aurreikusten ditu transferentzi arrunta 449.310 €koa eta kapital transferentzia 115.000 €koa, totalen udalak 2015. urtean baino 192.000 € gehiago bideratuko ditu kirol patronatura.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Amaitzeko, herritarren ongizatearen alde lan egiteko konpromisoarekin jarraituko dugu eta horretarako saiatuko gara baliabide guztiak bideratzen Zumaian beharrak betetzeko.

Alkatea: Orain jarraituko dugu aurkeztu diren **emendakinekin**

Joseba Azpiazu (EH BILDU): Irakuriko dut osotasunezko emendakinaren testua, bakarrik esatea berez aurrekontu hauek ikusita ez genuela aurkeztuko osotasunezko emendakina baina bakarrik ez dela edukiarri buruz baizik prozedurari, orduan irakuriko dut :

OSOTASUNEZKO ENMENDAKINA 2016RAKO AURREKONTUEN PROIEKTUARI
EMENDAKIN HAU, OSO OSORIK, UDAL GOBERNUAK AURREKONTUAK ONARTZEKO
ERAMAN DUEN PROZEDURARI DAGOKIO:

Ez dugu uste inoiz gertatuko zenik Zumaia Udalean aurten gertatu dena, hau da, aurrekontuen aurreproiektua eman eta justu handik astebetera irizpidea bozkatzeko batzordearen deialdia, eta hortik astebetera udalbatzarra. Zehatz mehatz esanda, udal gobernuak, abenduaren 15ean (asteartea) banatu zizkigun 2016ko aurrekontuaren aurreproiektua arratsaldeko 5ak inguruan, eta esan zigun hurrengo asteartean (hilak 22) beste batzorde bakar bat egingo zela aurkezten ziren emendakinak bozkatzeko eta aurreproiektuaren irizpena bera ere bozkatzeko. Eta ondoren, hurrengo astean, o sea, gaur abenduaren 30ean udalbatzarra egingo zela.

Benetan LOTSAGARRIA iruditzen zaigu udalean dagoen gai garrantzitsueneko astebete bakarrik ematea aurreproiektua aztertzeko eta behar izanez gero emendakinak aurkezteko, kontutan hartuta, gainera, ze garaietan gauden eta zenbat jaiegun dauden. Irizpidea bozkatzeko batzorderako 5 lanegun bakarrik eduki dugu batzordearen eguna bera kontutan hartuta eta urteko udalbatzar garrantzitsuen prestatzeko beste 4 lanegun udalbatzarren eguna bera kontutan hartuta.

Horrekin lotuta, ez dira egin aurreko bi legealdietan egin diren prozesu parte hartzaileak aurrekontuen aurreproiektu honi buruz herritarren iritzia zeintzuk diren jakiteko edo herritarrek beraien ekarpenak egin dezaten. Memoriako 9.puntuan, erdarazko bertsioan jartzen du: "Se potenciarán procesos participativos para el ciudadano". Kasu honetan, ez bakarrik ez da kontutan hartu herritarren iritzia, baizik eta gu ere "ninguneatu" egin gaitu udal gobernuak eta ez gaitu kontutan hartu gure ekarpenak egin ahal izateko epeak gutxienekora murriztuz. Ia herriaren erdia ordezkatzeko dugu, gu baino 70 bozka gehiago bakarrik daukazue eta gugandik "paso" egin duzue, hau da, ia herriko boto emailearen erdiaren gainetik pasa zarete. Hain zuzen ere, ez da hau zuen hauteskunde programan jartzen zuena eta gogoratu egingo dugu:

"HERRITARREN PARTAIDETZA, INFORMAZIOA ETA GERTUTASUNA – PARTICIPACIÓN, INFORMACIÓN ATENCIÓN AL CIUDADANO:

Plan estratégico para establecer, con la participación de los agentes activos del municipio, las prioridades de acción en el futuro de Zumaia. Ordenanza de participación y consultas: Dar la voz al pueblo. Oficina de atención a la ciudadanía: Tenemos que romper las barreras que separan a la ciudadanía del Ayuntamiento. El Ayuntamiento es una institución con una sólo función: atender a la ciudadanía y prestarle los servicios que necesita. Propondremos un procedimiento de mejora efectiva basada en la filosofía de que todas las personas que conforman el Ayuntamiento, sean



representantes políticos, sean funcionarios deben funcionar en base a criterios de vocación de servicio público."

Alkatea: Osoko emendakin honen aurrean, hitz egin dugu batzordean, epeak zergatik markatu diren markatu diren bezala, ez zait iruditzen pleno hau toki egokia denik azaltzeko benetako zergatia, baina azken finean hasieratik hauteskunde garaitik hainbeste aldarrikatzen ari garen elkarlan hori bi taldeen artean saiatu behar genukeela denon artean aurrera egiteko jarrera hori edo hitz hori edo konpromiso hori hartu genuen denon artean eta ez zaigu iruditzen azken aste hauetan horrelako pausorik eman dituenik Bilduk.

Ez batzordeetan, eta ez plenoetan, sare sozialetan e.a. gai hori hitz egin dugu eta ez da herritar edozein herritarrek egin dituen adierazpenak edo, ez? eta azkenean ikusten dut denbora izan duzuela hamabost egun batzordeak antolatzeko orduan eman zaizue aukera batzorde gehiago antolatzeko ere bai eta zuek ez zenuen planteatu gehiago nahi zenuenik, epea bai! guk esan genizuen guk abenduaren hasierako aurrekontuak prest genituela, abenduaren 15ean entregatu genizuen guztiz, bere informe kontu hartzailetzako informarekin eta guzti eta astebete beranduago eskatu duzue excelean entregatzeko aurrekontuak, eman zaizue eskatu duzuenean, orduan badakit gabon egunak izan direla tarteko e.a. baina hemen guk behintzat lanerako gaude eta egin behar dena egiteko ez? eta gure asmoa zen abenduan ekartzea beste kronograma bat jarri genuen, dakizuen bezala zein diren arazoak atzea aldatu egin dugu kronograma hori eta hemen gaude, ez?

Gero bigarren gozian parte hartze prozesuan eta hor egiten den, hemen esaten denean, nik Bilduri gogoratu nahiko nioke hauteskunde batzuek izan direla, duela sei hilabete hemen partidu bakoitza aurkeztu dela programa batekin, programa konkretu batekin, oso fresko daukagula herritarrak bozkatzeko aukera izan dutela hamar mila biztanleak, 9.750 zumaiaarrek, hori nik usten dut parte hartze garrantzitsua dela ez? eta bestetik gogoratu nahi dizuet baita ere plan estrategiko bat martxan daukagula zazpi bilera eman direla gaur arte 167 pertsonak parte hartu dutela, aurreko legealditik zetorren plan estrategiko bat zen ez da aldaketa handirik izan, baina bai bilera horiek antolatzeko orduan aldaketa batzuek proposatu ditugu eta igual sonatuko du puntuak nahi ditugula gehitu baina elhuyarren hitzetan beroiek plan estrategikoa aurrera eramanez dituzten udal herrietatik Zumaia hau alderatuta parte hartze oso inportantea izan dela aitortu dute eta nik usten dut plan estrategiko hori ere jasotako informazioa aurrekontu hauetan bere islada badaukatela eta aurreko legealdian egindako parte hartze prozesuek bere... ya que zuek jotzen duzuen edo heltzen diozuen aurreko legealdian egin diren prozesu horiei, nik hemen informatu duela bi urte teknikarien arlo bakoitzaren bitartez egin zirela prozesu parte hartzaile horiek eta teknikariekin hitz egin eta gero aitortu didate desastre bat izan zela, hirigintzako bi bilerak adibidez, o sea, bi bileretan parte hartu zuten pertsonak izan ziren zero pertsonak. Eta azkenengo urtean nik usten dut ikusita ze arrakasta izan zuen duela bi urteko prozesu parte hartzaile horiek, lehengo urtean egin zen, jarri ziren buzoiak eta herritarrak kalean beraien ekarpenak egiteko aukera eman zitzaion, berdintasuneko teknikariak jaso zituen buzoia horiek, zuzenean eman zitzaion



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

zinegotzia Maitane berdintasuneko zinegotziari eta hemen udaletxean teknikariak ez daukate zer eman zuen, ez dakigu, zenbat ekarpen egon ziren, ze jaso zen buzo horietan hemen udaletxe honetan ez daki inork. Orduan hori, eta bestetik zuzenketa bat, hauteskundeak izan ziren eta gutxiagatik baina irabazi egin genuen baina ez 70 bozkagatik, 75 bozkagatik, 5 gehiago, medio tubular baina irabazi eta besterik ez.

Alex Oriden (EH BILDU): Bakarrik komentatu bi aste, gainera izan diren programaren aldaketa izenak, izan diren aldaketak.

Aldaketa handiak izan dira zuek ere ikusi dituzue, guretzako ere izan dira aurrekontu proiektua aurkeztu zen arte, ez genekien horren berri ezer ere ez, eta guretzako izan dira bi aste zoramenekoak, kriston lana egin behar izan dugu eta bi aste benetan ez da batere denbora egin behar izan dugun lan hori ganoraz egin ahal izateko eta bestalde esan beharra daukat baita ere, nik usten dut, tradizioa izan dela beti eta bateren batek bestela usten baldin badu, zuzendu nazala baina aurrekontuak tratatu izan dira eta eztabaidatu izan dira batzordez batzorde beste urteetan, nik daukadan informazioa behintzat eh?

Eta bateren batek zuzendu behar baldin banau onartuko dut zuzenketa baina batzordez batzorde, nik usten dut bidea hori dela, lasaitasunez hartu, batzordez batzorde eman behar diren aldaketak eman behar diren informazioa esplikatu zergatik eta horrela, eta horretarako ez dago inolaz ere astirik.

Eta parte hartze kontuari, parte hartze orain egoten ari den parte hartze hori herri guztien parte hartzea da eta oso zorientzekoa gainera gu ere oso gustura gaude eta gure egin ahal guztia egiten ari gara plan estrategiko honek helmuga lortu dezan ahalik eta arrakasta handienarekin, baina usten dugu inportantea dela nahiz eta momentu konkretuetan parte hartze prozesu horiek ez izan arrakastatsuak insistitzea, zeren, parte hartzean guk behintzat sinisten dugu eta sinisten dugu baita ere herrian egin daitezkeen gauza asko parte hartzearen bidez plan estrategikoan egiten ari den bezala, baina baita ere plan estrategikoa bukatzen denean eta hurrengo aurrekontuak ere izango direnean parte hartzeari garrantzia emango diogu.

Alkateak: M. Cruz-ek du hitza

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Erantzun beharra daukat, ni hona sartu naizenetik, sei hilabete daramatzat horrela, zuk esaten duzun bezala lanean, bai! eta nik ziurtatzen dizut baietz! Orduan nik irakurri duzun testu honekin, egia esan gainera mayusculas jartzen duzun hitza LOTSAGARRIA hitza ez zait batere gustatu, iruditzen zait LOTSAGARRIA, laneko gogo falta alferkerietan EH Bildun ingurutik jaso ditugun hitzak dira, bai! eta niri egia esaten dizut guztiontzako hobe izango zen bai! aurrekontuak lantzeko denbora gehiago edukitzea, baina gure lantzeko era egia esaten dizut LOTSAGARRIA ez zaidala iruditzen.

Bestalde, ez zait iruditzen ere LOTSAGARRIA gure aktitudia ez? aurrekontuak aurkezteko orduan, zergatik? Iruditzen zait, hasiera hasieratik esan nizuela edozein dudetako, edozein gauza argitzeko zuen esanetara nengoela, deitzeko lasai eta elkartuko ginela, gero zerbait eskatu duzuenean ere whatsapppe adibidez aurrekontua excelen bidaltzea, baimena berehalaxe eman dut,



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

orduan? Honekin esan nahi dudana da gauzak gu behintzat, gure taldeak, gauzak hola egin baditugu ez ditugula inor izorratzeko egiten eta ez Alex!

Eta nik ziurtatzen dizut ezetz!

Eta LOTSAGARRIA niri beste gauza batzuek iruditzen zaizkit, egia esango dizuet, niri LOTSAGARRIA iruditzen zaidana da gertatu zaidana hona iritsi naizenetik, LOTSAGARRIA iruditzen zaidana da, ez dakit, entzutea niri taldekideei soldata igotzeagatik kalean entzun ditudanak eta gero hona heldu eta funtsezko gastu sinple batzuetan 50.000€ko aurrezkoa lortzea, hori da LOTSAGARRIA, zergatik? Dirua, herritarren dirua basuretara botatzen delako eta hori orain ikusi dugu, zenbat urtetan gertatu da hori? Niri horrek ematen dit LOTSA, ez beste guztiak eta utzi egingo dut, zeren azkenean berotu egiten naiz eta.

Alkatea: Norbaitek zerbait gehiago esateko?
150.000 € ziren aurrezkoa ez 50.000 €.

Bozkatzera pasako gara orduan

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (6 EH BILDU)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 SV-ES)

Abstentzioak:

ERABAKIA: EH BILDUK aurkeztutako osotasuneko emendakina ez da onartu.

EMENDAKIN PARTZIALAREN AURKEZPENARI EMANGO DIOGU HASIERA:

Mikel Zubizarreta: Hasiera batean ES-SVek hasi beharko azaltzen, baina aurkeztu ez duenez, orduan EH Bilduk aurkeztu beharko ditu:

Nerea Eizaguirre (EH BILDU): 1.GO EMENDAKIN PARTZIALA. GIZARTE ZERBITZUAK:

Gizarte Zerbitzuen arloan aldaketa sakonak datoz hurrengo urteetan eta baita lege aldetik ere horregatik eman beharreko zerbitzuak zabaldu egin beharra dago, eta bereziki "Familia, haur, nerabe eta gazteak" zerbitzua indartu eta berrantolatzeke premia dago. Horretarako, gizarte langile bat gehiago aurreikustea proposatzen dugu: Programa hori lotuta gizarte langile bat kontratatzea eskatzen dugu eta bere soldata aurreikustea gizarte segurantzak eta guzti, horregatik proposamena jartzen dugu erreala delako egindako proposamena:

120.00 Oinarrizko ordainketak

13.425,72 €



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

121.00 Ordainketa osagarriak	24.469,20 €	
160.01 Gizarte segurantza	13.263,22 €	
160.04 Pentsio fondoa	1.384,60 €	
GUZTIRA:	52.542,74 €	izango litzake, horixe da gure
lehenengo emendakina eta		

FINANTZIATZIOA:

IX.FINANTZA PASIBOAK:

2 933.01 Epe luzera jasotako maileguak +52.542,74 € izango litzake

Alkatea: Gai honen inguruan, atentzioa deitzen digu, dakigun bezala Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuaren mapa osatzen ari da, aldaketa handiak datoz, ni departamentu horretan nago, Gizarte Zerbitzuetako batzordean nago eta dagoeneko bi bilera izan ditugu Aldundian, aldaketa hauen gainean gaude baina guri oraindik ez zaigu iritsi eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariak ez du inongo eskaerarik egin, ez dakigu ze behar egongo diren, o sea, beharrak etortzen direnean martxan jarriko dugu jarri beharrekoa, baina hemen planteatzea teknikari bat kontratatatu behar dela soldata duinekin 52.000 €ko soldata duin batekin ez zaigu iruditzen oso, oso, momentuko gaia denik, hemen azaltzekoa, usten dut beti bezala beharrak sortzen dute pausoak eman beharra, o sea, ez lehenagotik, o sea ez langilea hartu beharren aurretik, eskaerak etortzen direnean udal gobernuak aztertu egin beharko ditu eta arrazoituta baldin badira eta beharrezkoak baldin badira pauso horiek emango dira, baina ez aurrez kontratatatu eta ikusiko dugu, lehenengo egingo dugu kontratatatu eta gero lana dagoen edo ez? edo Gizarte Zerbitzuko teknikariak behar duen edo ez ikusiko dugu, ez zait iruditzen oso zentzuzkoa egiten duzuen proposamen hau,

Nerea Eizagirre (EH BILDU): Bai ahal dut erantzun?

Bai, ez da inondik inora irrealia izango denik, gu kalean gaude egunero usten dut eta hemengo askok ere bai, eta Zumaian ikusita Gizarte Zerbitzuetan azken urtean goraka joan dela eskaerak gero eta gehiago dira eta horretan bai gainera azken urteetan indartu ziren asko, poza emango baita aurrekontu hauetan eta benetan esanda Gizarte Zerbitzuetan mantendu egiten dela eta horrek poza ematen digu %3a, txikia ez dela baina gure ustez esan nahi dut, Gizartearen joera ikusita ikusten genuen beharra handitzen doan gauza bat da esan nahi dut estatistikoki ikusi dugu eta aparte esaten duzu Gizarte Langileen, aurrena entzun egin beharko da zer den, Zumaia Gizarte Zerbitzuetako arduradunak eskatzen ari dira langile bat gehiago kontratatzea, hau da, erantzun erreala, hori bakarrik,

Alkatea: Berriz esaten dizut, buruak teknikari buruak ez du inongo eskaerarik egin eta zuek kalean zaudete baina kalean, kalean,... o sea azkenean teknikariak eskatu beharko dute, udal teknikariak dira benetan dakienak gaien inguruan eta beste departamentuetan egon dira eskaerak eta horretan hain zuzen ez da egon, orduan...



Alex Oliden (EH BILDU): Igual eskaera espezifikoa ez da egon baina bai batzordeetan aipatu izan dela Zumaia herri gaztea dela eta gazte jendeak piramidean kopuru handia suposatzen duela eta aurreikusten dela baita ere hor premiak handiak izango direla aurreikusten da baita ere arlo horretan bereziki eta beste arlo askotan ere programa berriak sortzeko kapazitatea eduki behar dugula, behar bada ez da Zumaia bakarrik izango programa berri horiek sortu beharko dituen, behar bada Mankomunitatean sortu beharko dira, behar bada beste goragoko instituzioekin elkarlanean baina gure inpresioa da batzordeetan eta ikusi izan duguna, orain Gizarte Zerbitzuetan dauden baliabideak nahiko justu heltzen diotela daukaten lanari eta lan administratibo handiari baina hor badagoela premi nahiko larria edo premi handi xamarra zerbitzu berriak sortu, pentsatu, egokituz Zumaia premietara eta nik usten dut hitz egiten baldin baduzu Gizarte Zerbitzuen teknikariekin hori konfirmatu egingo dizula,

Eta beste gauza bat Gizarte Zerbitzuetan egia da, zenbait gastu eta ondo etorriak izaten dira, guk ere oniritzia ematen diogu egindako zenbait partidaren igoerari baina kontutan hartu behar da baita ere San Juan Egoitza ez dela Zumaia Gizarte Zerbitzuen barruan sartzen eta orduan San Juan Egoitza kontutan hartu izango bagenu Zumaia udalak egiten duen Gizarte Zerbitzuetako esfortzua %11an jaitsiko litzatekeela, kontuak egingo ditugu elkarrekin nahi baldin baduzu, eta San Juan Egoitza kenduta %3,5 igoko litzatekeela, hori hala da.

Kontua da finantzazioa ere ez dauka, bale! baina finantzazioa gehigarria eduki du FOFIM-a dela eta beste zenbait... Zumaia udalak esan nahi dut, orduan neurtuko bagenu Gizarte Zerbitzuen esfortzua aurreko urtekoa eta oraingoa guk ez daukagu problemarik esateko ondo dagoela egin duzuen esfortzu hori, baina baita ere datuak bere horretan diren bezala aurkeztu nahi genituzke.

Alkatea: Nik usten dut behar hori txosten batean dago oinarrituta? Oinarri dago?

Ez baldin badago nik usten dut gai honek ia eman duela eman beharrekoa eta bozkatzera pasako dugula, bestela?

Nerea Eizagirre (EH BILDU): Gauza bat da emendakina... ez bazaude ados, ez zaudetela, baina ez dela irreal egin dugun proposamena konkretua da eta hau proposatzeko egon gara aztertzen aurreko urteetako eskaerak estatistikoak Gizarte Zerbitzuen igoeraz, bakarrik ez esateko ez dela zerutik erori, esan nahi dut proposamen erreal dela,

Alkatea: Bukatzeko eta honekin ia bukatu egiten dugu, langile bat kontratatzea planteatzen duzue eta zein izango dira beraren egin beharrak? Nik langile bat kontratatzen badut izango da hau garbitzeko edo... zer egin behar baterako kontratatzen dut, zuek esaten duzue kontratatatu egingo dela langilea eta zein izango dira egin beharrekoak, o sea zehatzak



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Alex Oliden (EH BILDU): Pentsatuko duzu ba, bi asteko epe horretan gauza horiek denak zehazteko modurik ez dugula izan, bai eduki dugula modua zehazteko premia hori benetakoa dela eta adibidez okurritzen zaigu orain dauden Gizarte langileak ia-ia % 100ean lan administratibo burokratikoan denbora asko erabiltzen ari direnak pixkat liberatu edo programa konkretu horretan guk esan dugun programa konkretu horretan zerbitzu berriak sortu, hor lan handia dago egiteko, lan berria dago, zerbitzu zorro hori bete egin beharko da eta aurreikustea, baliabideak jartzea lan hori etorriko delako eta ia hemen dagoelako.

Bueno, hitza Xabierrek eta ia bukatzen da eh?

Xabier Garmendia (EAJ-PNV): Azterketa hori idatziz eginda baldin badaukazue, eskertuko nizukeke nik behintzat pasatzen baldin badidazue, usten dut gure talde osoak eskertuko genizukeela asko, horixe zen besterik gabe, ahal baldin baduzue bidali estimatuta egongo litzake

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (EH BILDU)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Abstentzioak:

ERABAKIA: 1. Emendakin partziala ez da onartu

ARRITXU IRIBAR (EH BILDU): 2.EMENDAKIN PARTZIALA. EUSKARA:

Krisialdi honetan, euskaraz aritzen diren komunikabideek murrizketa handiak izan dituzte, orohar, instituzioek emandako diru laguntzatik. Badirudi, eskualde desberdinetan "Hitzek" murrizketa latzak jasoko dituztela. Proiektu honetan ere, 23.650,00 euro jaitzi da diru laguntza hau eta 5.000 eurotan gelditu da. Diru laguntza ekonomikoa beharrezkoa da eta beharrezkoa du euskarak eta euskal kulturaren alde lanean jarrai dezan "Hitzak". Mondragon unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, euskarazko hedabideek aberastasuna sortzen dute. Euskarari diruz laguntzea ez da dirua galtzea, inbertsio bat da euskarazko komunikabideak balio sozial batean bihurtzen dutena.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Gainera, gogoratu behar dugu "Urrezko bikain" ziurtagiria jaso berri duela ere Urola Kostako Hitzak.

Beraz, eskatzen dugu, lehen zegoen diru laguntzari eustea:

335.00 PROGRAMA: EUSKARA:

481.04 "Hitza"ri diru laguntza **23.650,00 €**

FINANTZIATZIOA:

IX.FINANTZA PASIBOAK:

2 933.01 Epe luzera jasotako maileguak **+23.650,00 €**

Alkatea: Gai honen inguruan pleno guztian zehar esaten ari garen bezala ari gara begiratzen, aztertzen partida guztiak, ordaintzen diren faktura guztiak ematen diren subentzio guztiak eta tarteko "Hitza" dago ez?

Gu sartu berriak gara eta gauza asko guretzat berriak izan dira, zuentzat bezala, Alexek esan duen bezala eta gai honen inguruan atentzioa deitzen didana da subentzioak emateko orduan Zumaiaren kasuan 28.000 € pasatxo ziren "Hitza"ri egiten zitzaion diru laguntza eta zergatik ez 60.000 ez?

Nik egin nituen azterketa batzuek herriz-herri ea zein zen herri bakoitzak egiten zuen diru laguntza komunikabide honi, euskarazko komunikabide honi eta datuak asko deitu zidaten atentzioa, gure bailaran eh? Oriotik hasi eta Azkoitian bukatzen eta ikusten dudana da ez dagoela base bat edo eskema bat edo ez? eta "Hitza"koarekin izan nuen bilera eta hori helarazi nion eta berak hartu zuen konpromisoa bidaliko zidala diru laguntzen iturria zein zen alde guztietatik, zeren, dakizuen bezala Zumaia udalak diru laguntzen inguruan bere ordenantzak dauzka 2011ko urtarilean onartuta, boletinetik pasata eta onartuta eta bosgarren puntuak dio:

Diru laguntzen zenbatekoa:

Diru laguntzaren zenbatekoak beste administrazio publiko batzuek helburu berarekin emandako diru laguntzekin batera ezingo du diruz lagundutako obraren edo jardueraren kostua gainditu.

Hau da, guk ezin dugu eman diru laguntza bat kostua baino gehiago dena, orduan "Hitza"ren inguruan sortzen zait halako -cachibache- bat ez?

Adibidez, Azpeitiko udalerrri bat 14.000 biztanle duenak, egiten duen ekarpena diru laguntza da 27.000€koa ez?

Getaria 2.800 biztanle dituenak 3.500eko ekarpena egiten du ez?

Zarautz batek aurreko legealdian 21.000 pertsonako biztanle dituen herri batek 35.000 € ia Zumaia baino 6.000 € bakarrik, ez?

Zestoa batek dauzkala 3 mila eta pico biztanle 7.300€ ez?

Eta Zumaia dauzkala 9.750 biztanle 28.650€koa, orduan honen inguruan iruditzen zait azterketa sakon bat eskatzen duela eta diru laguntzen inguruan egiten dena da diru laguntza bat guk onartzen dugu diru laguntza bat baina gero kontu hartzailetzatik hasieran %70eko diru laguntza ematen da eta gero %30ekoa ematerakoan emango da "Hitza"-ren kasuan "Hitzak" aurkezten bada bere balantze itxia, horren arabera emango zaio %30a edo eskatuko zaio %70a bueltatzen, subentzioa baldin bada kostua baino handiago edo dena delakoa bere kasuan ez?



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

Orduan horrelako desoreka ikusita udalerrri desberdinetan ematen dena Bildu, PNV, igual dio ze partidu dagoen udaletxean ez zait iruditzen justua denik eta zuzena denik eh? Nik usten dut irizpide bateratu bat eraman beharko lukeela "Hitzak" lehenik eta behin eta ez Zumaiako herriak izatea baraila guztiko herri bakarra 3€ biztanleko ematen duena, bakarra da, Bildu, PNV edo... Bildu eta PNV dauzkagu gure bailara inguruan, o sea, da herri bakarra, orduan aurten sartu ditugu 5.000 €ko diru laguntza, o sea, besteak beste aurreko urte denetan Zumaiarrei dagokiguna baino gehiago ordaindu dugulako beste udalerriekin konparatuta, eta horixe, besterik ez.

ARRITXU IRIBAR (EH BILDU): Nik zerbait gehiago erantsi dut, eta jakinen gainean egongo zarete 2015ean hor beraien funtzionamenduan aldaketa bat izan zela eta "Hitza"ren laguntzak Baleiken ere baduela eragina, Baleike da "Hitza" hornitzen duena eta hor bateratuta jaitsiera honekin "Hitza" kondenatu egiten da desagerketara hemengo zerbitzuan eta Baleikeri izugarritzko mina eta bizi iraupena zalantzetan jarriko da, egia da hausnarketa eta azterketa behar duela gaiak baina lotuta doa Baleikerekin eta nik uste "Hitza" kontsumitzen dugunok aurten ikusi dugula zer nolako aldaketa eman den Zumaiako, bertako albisteak argitaratzerakoan eta hori izanda Baleikerekin elkarlanean egin duten zerbait, hor aldaketa handia emanda eta ez bakarrik "Hitza"renzat Baleikerentzat ere ondorio larriak izango ditu jaitsiera honek.

Alkatea: Are eta grabio iruditzen zait, o sea, Zumaiarrak ginen "Hitza"ri ematen genion kopuru handia biztanlego eta arazoak zituen Zumaiako albisteak betetzeko, gaineratik! Gehienak ordaindu eta gaineratik ez zen behar bezala betetzen, orduan...

Nik usten dut gai honek ia eman duela baita ere eman beharreko dena eta beste inork zerbait eransteko?

Joseba Josu Azpiazu (EH-BILDU): Nik bakarrik esatea "Hitza"ren diru laguntza onartu zenean buruz ari naiz, baina begiratu egin beharko litzateke, usten dut zela 2007an PNV-k azken aurrekontua egin zuenean, guk aurkeztu genuen gaur bezala emendakin batzuek eta onartu egin zuten hori "Hitza"rena eta beste batzuek ere bail, eta beste batzuek ez! eta horren ondorioz gainera abstenitu egin ginen, usten dut.

"Hitza"rena nahi dut esan ez dela bere garaian beste gobernu batek ipinitako gauza bat, guk eskatu genuen eta PNV-k onartu zuen, hori nahi nuen esan besterik gabe.

ERABAKI ZATIA



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Aldeko botoak: 6 boto (EH BILDU)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Abstentzioak:

ERABAKIA: 2. Emendakin partziala ez da onartu

ALEX OLIDEN (EH BILDU) 3. EMENDAKIN PARTZIALA

3.EMENDAKIN PARTZIALA. INGURUMENARI buruzko da:

Beharrezkoa ikusten dugu hondakinen birziklatze maila igotzeko kontzientziazio eta sentsibilizazioarako diru partidak mantentzea edo igotzea, kontutuan hartuta, dirudienez, birziklatze mailak jaisten ari direla. Proiektu honetan, diru partida hau, 20.000,00 eurotan jaitzi da.

Beraz, eskatzen dugu, gutxienez lehen zegoen mailan mantentzea, birziklatze tasa handitzea eta jendea kontzientziazioa eta guk uste ia ez dela ezinbesteko Zumaiaren biztanlegoarentzako bakarrik baizik eta bizi iraupen kondizio minimo bat, orduan:

170.00 PROGRAMA: INGURUMENAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN:

226.09 Kontzientziazio eta sentsibilizazio Kanpainak **20.000,00 €** igotzea eskatzen dugu.

FINANTZIATZIOA:

IX.FINANTZA PASIBOAK:

2 933.01 Epe luzera jasotako maileguak **+20.000,00 €**

OIER KORTA (alkatea): Gai honen inguruan beharrezkoa ikusten dugu birziklatze maila jaisten ari direla dirudienez, datu hori daukazu edo

ALEX OLIDEN (EH-BILDU): Aitorrek eman zidan, (Mikrofonorik gabe) behar bada ordenadorean begira hasita bilatuko nuke baina Aitorri eskatu diezaiokezu eta egiaztatzen da.

OIER KORTA: Aitor ez dago hemen baina taula hemen daukat, ekarri dut, Hemen ikusten dugun bezala 2010ean reziklatze tasa, hau da, Aitorrek eman zizun taula,

2010ean 27,87koa zen gaikako sailkatze portzentaia

2011an 28,66

2012an 34,61

2013an 42,30

2014an 42,45



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Eta aurten 2015ean lehen aldiz Zumaia iristen da gainditzen du 43ko portzentaia, beraz egiten ari garena gora da, orduan batez ere datu hauek esaten ditut gauzak azaltzen direnean oinarri bat izateko, besterik ez.

ALEX OLIDEN: (Mikrofonorik gabe)

..... Ez dela birziklatze tasa edo jasotze berezi horren tasa ez dela igotzen.

Eta hori oso preokupantea da zeren igotzen egon beharko luke eta gainera oso azkar, bestela martxan txarrean goaz, gizarte bezala.

OIER KORTA: Igotzen doaz, orduan ez daukagu inongo arazorik eta aparte baliabideak eta batzorde baten edo beste hitz egin dugu ia ze proiektu dauzkagun, badakizu zuk Alex, eta diruarekin ez dela dena lortzen eh? Kudeaketa on batekin ere.... Aurrekontuetan diru jarri gabe lortu daitezkeela emaitza onak eta gu ziur gaude lortuko ditugula Beraz, bozkatzera pasako gara puntu hau

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (EH BILDU)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Abstentzioak:

ERABAKIA: 3. Emendakin partziala ez da onartu

NEREA EIZAGIRRE (EH BILDU) 4. EMENDAKIN PARTZIALA

GAZTERIAri dagokion emendakin partziala:

Aspaldian, gaztetxola txikia geratzen ari dela ikusi dugu, hitz egin dugu batzorde desberdinetan, atera ere bai plan estrategikoan, lekualdatze bat premiazkoa ikusten da edo birplanteamendu oso bat eta horretarako partida bat zabaltzea eskatzen dugu proiektua idatzi ahal izateko.

Aurrez, aipatu behar ere bai aurreko gobernuan ia egin zela zenbait estudio eta hor daudela, pasa dituzte batzordetara eta dena baina bueno usten dugu proiektua idazteko partida bat beharreko dela, behintzat proiektuarekin hasteko eta gero prest gaude baitan hurrengo aurrekontuetarako badakigu igual partida oso handia edo izan beharko zela baina bueno elkarrekin pentsatu beharreko zerbait izango zela, baina proposamen konkretua aurtengo aurrekontuetarako



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Beraz, eskatzen dugu, partida bat proiektua idazteko:

337.20 PROGRAMA: GAZTERIA:

643.01 Gaztetxolako proiektua idazteko **12.000,00 €** bideratzea da.

FINANTZIATZIOA:

IX.FINANTZA PASIBOAK:

2 933.01 Epe luzera jasotako maileguak **+12.000,00 €**

Alkatea: Gai honen inguruan aspaldian gu ailegatu berriak gara eta aurreko gobernuak ez dakit ze pauso emango zituen gai honen inguruan, gu jabetzen gara egoera horretaz eta aurrekontuetan jasota daukagu proiektuetarako 52.000€ko partida bat dago, hainbat proiektu gauzatzeko eta besteak beste proiektuak baino gehiago, nik usten dut beroiekin elkarlanean begiratu beharko dela ze eraikin, udal-eraikin daukagun gaztetxolari leku egokiago bat aurkitzeko, baina ez zaigu iruditzen egokia emendakin hau onartzea zeren esaten dizut badaukagu izendatuta, aurrekontuak hartzen dute 54.000€ko partida bat proiektuak lantzeko orduan eta lau partida havei aurre egiteko planteatzen duzuen zorpetze hori ez zaigu iruditzen denik egokia, adibidez, "Hitza" subentzionatzeko udala zorpetzea ez? Eta kontu honetan ere 12.000€ko kopuru hori ez dakit, nondik datorren txosten bat daukazuen, koste bat kalkulatu duzuen eta ez zait iruditzen onartzekoa direnik emendakin hauek, Xabierrek du hitza

Xabier Garmendia (EAJ-PNV): Kuriositatea zikat 12.000€ak zertarako izango liratekeen zehazki?

Zeren udalak badauzka nahiko baliabide proiektua idazteko ze behar duen gaztetxolak eta gaztedia teknikariarekin hitz eginda dago horri buruz eta hirigintzako jendearekin ere bai, orduan ez dut ulertzen nora joango liratekeen 12.000€ horiek, besterik gabe.

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Esaten duzun partida suposatzen dut dela 54.000 € jartzen duena proiektuak idaztea San José – Larretxo, baina guk ez dakigu hor... Baina ez dakigu gaztetxola sartzen den edo zer sartzen den, hau ere guk eskertuko genuke baldin badago eginda ikerketa bat partida honi buruz, guri ere ematea ea zer proiektu sartzen diren eta ze lan dauden baloratuta, eta zertan ateratzen diren 54.000€ horiek.

Alkatea: Oso ondo, eskerrik asko

Hori irteten du hirigintzako teknikariak berak esandako kopuruan, kopuruak ez ditugu sartu –al tuntun- oinarri batekin sartu ditugu, denak eh? Lanketa sakon bat egin dugu arlorik-arlo teknikari bakoitzarekin eta bere jatorria daukate, planteatzen ditugun partida guztiak zerbairetan oinarrituta daude.

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Hemen, honekin ez gara sartuko,



Alkatea: Nik usten ia... Alexek du hitza,

Alex Oliden (EH BILDU): Xabierrek galdetu duenari buruz, nik uste udalean egongo dela, badago estudio bat egin da udal honetan eta estudio horretan gomendatzen da ze lekutan izan litekeen baita ere gaztetxola berria, egiten da nik uste... ni ez naiz inor baloratzeko zenbaterainoko zehaztasunarekin eginda dagoen edo ez, baina bai aipatzen dela zenbat kostatu litzatekeen gutxi gora behera hor egin beharreko aldaketak horren arabera eta badago portzentai konkretu bat kalkulatzeko obra zenbat izango litzatekeen eta obra horren proiektua egitea hortik ateratzen da, ni oker ez banago eta kantitate hori hortik aterata dago.

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Komentatu duzu maileguena, maileguena jarri dugun guztietan onartzeko askoz errazagoa izateko, zeren atera ahal genezakeen beste partida batzuk gastuak murriztuz, baina bueno... ez erabaki dugu zuek ipinitako gastuak murriztea ez proposatzea bestela oraindik seguru aski okerragoa izango litzake, orduan horregatik hartu dugu partida hori jakin da gainera seguru aski hauek onartuko balira ez zela zorpetuko, ez zela erabiliko hori,

Alkatea: Eskerrik asko; Hor, nolabait aitortzen duzu aurrekontu onak direla, ezin duzue kendu beste partidatik ikusten duzulako egokiak direla, ez?

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Kontinuistak dira, gutxi gora behera zehaztuko dugu gero baina esan dut lehen, ez balitz esan prozeduragatik osotasunezkoa ez genuen sartuko, más o menos, aurreko urteari begiratuta badaude zehaztasun txiki batzuek, usten dut zuk zeuk batzordean esan zenuela, gutxi gora behera lehen modukoak direla

Alkatea: Orduan gustatu zaizkizue aurkezten ditugun aurrekontuak,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (EH BILDU)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Abstentzioak:



ERABAKIA: 4. Emendakin partziala ez da onartu

MARIKRUZ ALVAREZEK (EAJ-PNV) 5. EMENDAKIN PARTZIALA

Gure emendakinak gehien bat dira aurrekontuetan akats batzuek egin ditugulako kalkulu batzuetan eta oso errazak dira, alde batetik izango zen deposituen interesak 9.000ko gehikuntza proposatzen da eta gehikuntza hori kreditu globalea joan zen, horrela kreditu globala geldituko zen 34.000€kin,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 6 boto (6 EH BILDU)

ERABAKIA: 5. Emendakin partziala onartu da

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV) 6. EMENDAKINA

GHK-ren tarifako altako tratamendua,

Hor ere akats bat dago, ez dakit akatsa izan den edo informazioa oso berandu heldu zaigun, kontua da konturatu garela partida horrek behar dituela 26.681€ eta kreditu globala izango zen kontrapartida, orduan kreditu globala geldituko zen 7.388€kin.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Alkatea: Bozkatzera pasako gara: Aldeko botoak?

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Bakarrik galdetzea partida hau GHK tarifa hau zertarako da, pentsatzen dut Mankomunitateak eskatu duela baina...

Alkatea: Ez dakigu atzo bertan iritsi ziztaigun korreoa mankomunitatetik GHK igoera bat... atzoko kontua da eta horregatik presaka sartu ditu M. Cruzek aldaketa hori, ez dakigu exactamente...

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 6 boto (6 EH BILDU)

ERABAKIA: 6. Emendakin partziala onartu da

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV) 7. EMENDAKINA

Azken emendakina ere bai Mankomunitate aldetik, Partidan beste akats bat, akatsa edo lehen esplikatutakoz bezala informazioa berandu iritsi zaigula eta da enplegu sustapenerako partida Mankomunitatekoa 1.461,39ko gehikuntza behar du eta gutxikuntza izango zen kreditu globalean ere orduan azken finean totalen kreditu globala hiru emendakinekin geldituko zen 5.927,01ean

Alkatea: Aldeko botoak?

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:



ERABAKIA: 7. Emendakin partziala onartu da

Alkateak: Orain aurrekontuak bozkatu behar ditugu bere osotasunean

Alex Olidenek (EH BILDU): Bai guk ere azaldu nahi genuke, gutxi gora behera interpretazio bat hartu duzue orain arte izandako botazioekin baina interpretazio hori neurri batean zuzena izan daiteke baina ez erabat, orduan argitu nahi genuke aurrekontu hauek ze iruditzen zaigun eh?

Orokorrean esan dezakegu azken urtean onartu zen aurrekontuen jarraipena dela eta ez dagoela desberdintasun garrantzitsurik. Azterketa bat egin dugu kapituluka bai diru-sarrereri dagokionez eta baita ere gastuei dagokionez.

DIRU SARRERA ARRUNTAK:

I.KAPITULUA:

Zerga zuzenak %3,23 igotzen dira 2015ekoekin konparatuz.

Zehazki, igoera hori 2 zergatan ematen da: Jarduera ekonomikoen gaineko zergan eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergan. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga aurreko urtean bezala mantentzen da eta ondasun gaineko higiezinaren gaineko zerga jaitsi egiten da ordenantza fiskaletan errekaragoa kentzearen ondorioz.

Igoera hau, pentsatzen dugu, 2014ko likidazioak, aurtengo exekuzioa eta zergen ikuskapena kontutan hartuta erabakiko zirela baina ez memoriako 14. orrian jartzen duen bezala, 2016rako onartu diren ordenantza fiskalei egokituz zeren zerga hauek guztiak izoztu egin ziren eta gainera Ondasun Higiezinaren gaineko zergan zegoen errekaragoa ezabatu egin zen.

III.KAPITULUA:

Tasak eta beste sarrerak %5,68 igotzen dira 2015ekoekin konparatuz.

I.kapituluan esan dugun bezala, memorian jartzen du 2016rako ordenantza fiskalei egokitu direla baina kontutan hartuta igoera nabarmenena ur-hornidura zerbitzuan ematen dela (149.185 €, hain zuzen, hau da %14,87) ez dugu uste ordenantzengatik izan dela ur-horniduraren tasa izoztu egin baitzen. Ziur aski, bestelako estimazio batzuk egin dira exekuzioak eta azken likidazioak begiratuta.

IV.KAPITULUA:

Transferentzi arruntak %3,17 igotzen dira 2015ekoekin konparatuz.

Bi aldaketa nagusi daude 2015ekoekin konparatuz:

Alde batetik, San Juan egoitza Foru Aldundiaren eskumenera pasatzen denez, ez dago horretarako jasotzen zen diru laguntza.

Bestalde, eta aldaketa nabarmenena da, bai kapitulu honetan eta baita ere aurrekontu osoan, Udal Finantzaketarako Foru Fondoan egon den igoera nabarmena. Kontutan hartu behar da, azken urtetan, ez duela horrelako igoerarik izan (askotan murrizketak ere bai), eta hurrengo urterako, %8,22ko igoera izango du. Azken legealdiako Foru Aldundiko Gobernuaren kudeaketa zorrotza, eta bere politika fiskalari esker, aurtengo errekaradazioa handitu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 14 milioi gehiago banatu ditu aurtengo aurrekontuetarako eta beste 15,5 milioi hurrengo urterako. Zumaiari dagokionez, 462.267 € gehiago jasoko ditu udalak 2016. urtean, eta



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

gainera, 2015erako aurreikusta zegoenetik beste 54.184,28 € ere jasoko ditu. Bizkaia Foru Aldundiak, ordea, ez zituen bere lanak egin, ez zituen bete berak egindako aurreikuspenak eta 200 miloi gutxiago jaso ondoren, Bizkaiko udalek 48 miloi euro itzuli beharko dituzte Foru Aldundiari 2016an. Bi politika fiskalen aldeak isladatu dira, beraz, 2 lurralde historikoetan. Gipuzkoan, udalek diru gehiago jasoko dute eta pozten gara Zumaian ere horrela izatea, eta Bizkaian, berriz, dirua itzuliko beharko dute. Dena dela, dirutza honek aldaketak eduki ditzake urtean zehar eta errekaudazioaren arabera eta, agian, prudenteak izan beharko ginateke eta ez jarri kopuru osoa aurrekontuetan.

Batez ere, IV. kapitulua kontutan hartuta, SARRERA ARRUNTAK (I,II,III,IV eta V. kapituluko sarrerak) handitu egin dira %4an. Igoera 470.373 €takoa izan da, hau da, izan daiteke sarrera arrunten igoera, ia bere osotasunean Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren igoerari esker izan dela.

VII. KAPITULUA. KAPITALEZKO DIRU SARRERAK:

Aipatu behar dira VII. kapituluan dauden 2 kapital transferentzia: bata, 350.000 €takoa, Gipuzkoako Foru Aldundiarena Zumaiaiko frontoi luze berriarentzat (aurreko legealdian kudeatu zena) eta bestea, 100.000 €takoa, duela gutxi oraingo udal gobernua sinatutakoa Gipuzkoako Futbol federazioarekin. Biak ere modu positiboan baloratzen ditugu.

IX KAPITULUA. FINANTZA PASIBOAK:

Nahiz eta ez den aurreikusten mailegurik eskatzea 2016.urtean, argitu beharra daukagu memoriako 2.orrian jartzen duena, azken paragrafoan: "Beraz, zorpetzea gutxitu egin da". Nahiz eta 2016ko aurre proiektuaren eta 2015 aurrekontuak konparatuz horrela den, errealitatean ez da horrela izan, zeren 2015.eko aurrekontuetako IX. kapituluan aurreikusita zeuden 445.000 € horietatik, ez da xentimo bakar bat ere eskatu.

GASTU ARRUNTAK:

I. KAPITULUA. PERTSONAL GASTUAK:

Pertsonal gastuak %0,69 igotzen dira 2015ekoekin konparatuz eta 2016ko aurrekontuaren %24,83a suposatzen dute. Nahiz eta, orokorrean hartuta pertsonal gastuak igoera oso txikia izan duen, honako hauek zehaztu behar dira:

- Gobernu organoen pertsonal gastuek, hau da, alkatearenak eta beste 2 zinegotzi liberatuenak, %34,21ean igo dira 2015eko aurrekontuekin konparatuz gero. Hau da, liberatuen soldatak, 31.880 € gehiago kostatuko zaigu herritar guztioi. Datu honek, bi aurrekontuen konparaketa islatzen du baina, kontutan hartzen badugu, aurreko legealdian ez zela guztia gastatzen, aurreikusitako 2 liberatuetatik bat eta erdi bakarrik gastatzen zutelako, konparaketa errealaren ondorioz, %67,05eko igoera aterako litzateke. Laburtuta, liberatuen soldatak, herritarrentzat suposatuko duten kostu errealaren gorakada, 50.194,60 €takoa izango da urtero.
- Zerbitzuetako brigadaren gastuak murriztu dira. 2015eko aurrekontuekin konparatuz gero, 74.565 € (%22,49) gutxiago gastatuko da herritarrentzako zerbitzuak murriztuz. Ofizial bat eta beste peoi bat gutxiago egongo dira lanean herriarentzat.
- Baita ere, 2015eko aurrekontuetan aurreikusten zen turismorako errefortzua ezabatu da 11.000 € murriztuz. Dena dela, zerbitzu hau azpikontratatu egingo da II. Kapituluaren barnean.
- Bestalde, esan behar da, pertsonal gastuei dagokionez, ez dakigula zein irizpide orokorrekin egin diren (orain ia esplikazioaren ondoren badakigu %1eko igoera hori) hitzarmen igoera.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

- Bukatzeko, uste dugu kapitulu honetan, igoera eman beharko litzatekeela gizarte zerbitzuetan asko handitu baitira zereginak arlo horretan eta aurrekontuetan ez da inolako igoerarik jaso.

II. KAPITULUA. ONDASUN ARRUNTEN EROSKETAK ETA ZERBITZUAK:

Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuek %0,22ko jaitsiera oso txiki bat izan dute orokorrean eta aurrekontu honetan, behintzat, ez da islatzen hainbat alditan udal gobernuak esan duena azken hilabetetan, hau da, esfortzu handia ari direla egiten gastu estrukturala jaisteko. Gastuen artean kapitulu handiena da eta aurrekontuaren %40,88a islatzen du.

Memoriako 12. orrian gaizki jartzen ditu kapitulu honetako gastuak, berez, 11.468 euroko jaitsiera eduki baitute.

Dena dela, ikusi dugu aurrekontu hauetan lehen aipatutako esfortzu hori egin dela eta nabaritzen dela, esate baterako, argiterian, aseguruetan, edo kontratu batzuetan (kale garbiketa, hilerria edo komunikaziorako aholkularitza). Beste kontratu batzuk berdin mantentzen dira (eguneko zentroa, alborri edo hondartzakoa) baina beste batzuk igoera dexentea ere badute (adibidez, ur-hornidura, hondakinak, lorezaintza edo etxez-etxekoa).

Dena dela, memoriako 3. orrian, jartzen du, II. eta IV. kapituluei dagokionez, irizpide orokorra jarraituko dela, hau da, udalaren aurrekontura eta kontratatutako zerbitzuen igoera orokorra. Pentsatzen dugu emaitzak aparte utzita, irizpidea ez zela hori izango.

Kapitulu honetan, kontratuak aparte utzita, beste partida batzuk ere ondo baloratzen ditugu. Adibidez, hainbat gastu igo direla gizarte zerbitzuetan, eskola kontseilurako, kultur jardueretako edo artelanak berritzeko.

Ordea, ez ditugu ondo ikusten honako hauek jaitea: ingurumeneko sentsibilizazio kanpainak, berdintasuna + aniztasuna, euskarakoak (Julene Azpeitia barne) edo aurrekontu parte hartzaileak egiteko zegoen partida ezabatzea. Ez dugu uste ez da ere, Aita Mariaren 150. urteurrena dela eta 5000 € nahikoa izango direnik.

III. eta IX. KAPITULUAK. FINANTZA GASTUAK ETA FINANTZA PASIBOAK:

2016an, udalak ordaindu beharreko interesak eta amortizazioak jasotzen ditu. Gogoratu behar da zor hauek Zumaia Lantzenen disoluziotik datozela bere garaian ezin izan zituelako ordaindu bere barnean zeuden planak, batez ere, UTE Torreagak ordaindu gabe utzi zion zorraren ondorioz.

IV. TRANSFERENTZI ARRUNTAK:

Transferentzi arruntek %3,08ko jaitsiera izan dute orokorrean 2015eko aurrekontuekin konparatuz gero. Kontutan hartuz gero, Udal elkarteari eman behar zaizkion transferentziak igo egin direla (batez ere hondakinen tratamenduaren programan), murrizketak proportzio hori baino gehiago islatzen dute. Gainera Memorian, 12. orrialdean ematen den datua gaizki dago: esan bezala %3,08 jaitsi dira eta ez %3,17 igo, Memoriak dioen bezala.

II. kapituluan esan dugun bezala gauza batzuk positiboki baloratzen dugu, batez ere, enpleguaren sustapenerako zabaldu den partida, 30000 eurokoa. Baita ere ondo ikusten ditugu honakoak: gizarte larrialdietarako igoerak, berdintasunerako beka, kirol patronatuarentzat igoera eta musika patronatuari diru laguntza mantendu izana.

Ezin ditugu ondo ikusi, ordea, euskara arloko laguntzek eduki duten jaitsiera, batez ere, Urola-kostako Hitzari ematen zaiona ia ezerezean utziz. Baita ere, ezin ditugu utzi aipatu gabe "nazio erakundeei diru laguntza" eta "presoen urrutiratzeak sortzen dituen galera ekonomikoentzako diru laguntza" partiden desagerpena.

AURREZKI GARBIA:



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Aurrezki garbia, 2015ekoarekin konparatuz gero, 317.213 € handiago izan da, baina ez da izan gastu arrunta murriztu delako baizik eta, diru-sarrerretako IV. kapituluko atalean esan dugun bezala, Udal Finantzaketarako Foru Fondoarekin 462.267 € gehiago jasoko dituelako udalak 2016.urtean. Baita ere transferentzia arruntak jaitsi egin direlako, lehen esan dugun bezala. Beraz, logikoa da igoera hori edo handiagoa egotea.

VI. KAPITULUA. INBERTSIOAK:

Nahiz eta 2015ean baino diru gehiago eduki inbertsioetarako, %5,73 murriztu dira aurreko urtekoarekin konparatuz. Orokorrean, ondo ikusten ditugu guztiak, baina, agian, zerbait gehiago ere egin zitekeen.

Kopuru altuena dutenen artean, 3 dira aipatzekoak: San Jose kaleko irisgarritasuna (350.000 €) eta beste biak aurreko legealdiko jarraipenak dira: Zumaiaiko frontoi luze berria (350.000 €) eta Artadiko saneamendua (230.968 €).

VII. KAPITULUA. KAPITAL TRANFERENTZIAK:

2015ekoekin konparatuz, 100.000 eurotan handitu dira. Kirol patronatuari emango zaio diru hau eta ondo baloratzen dugun igoera da.

VIII. FINANTZA AKTIBOAK:

Asko murriztu da, zorionez, 2015ekoekin konparatuz gero, zeren azken urtean, udalak 453.000 euro eman zizkion Zumaia Lantzen bere galerak konpentsatzeko. Aurrekontu honetan ez da aurreikusi behar horrelakorik Zumaia Lantzen disolbatuta baitago.

ZUMAIAKO EH BILDU UDAL TALDEA

Eta gero M. Cruzek egindako aurkezpen pixkat triunfalistari pare bat aipamen egin euskararen gastua igo dela esan duzu % 4an, behar bada kalkulu hauek pintzakin hartu beharko ditugu denok, zeren, izan den aurrekontu partida aldaketa honekin eta dantza honekin behar bada konparaketak ez dira errazak, baina nik neure datuak emango dizkizut eta hain zuzen euskarari jaitziera %14koa izan da, Hitzarena % 82,5ekoa, baina hori aipatu dugu.

Ingurumenean jaitziera % 20a izan da.

Lora zaintzaren kontratuan % 25 igo da eta esan beharra dago gure iritzi behintzat hau normalean izaten dela sasoko lorentzako eta ekonomikoki despilfarro bat dela eta ekologikoki ere bai eta baita ere aurreko aurrekontuetan aurreikusita zegoen zuzendaritza plana zuhaitz eta jardinen eta zuzendaritza plana, hain zuzen, ekonomikoki despilfarroa den hau ebitatzeko prozesu parte hartzaile baten bidez aurreikusita zegoena desagertu egiten da baita ere.

Gizarte Zerbitzuetan, lehenago esan dudana 3,5 igotzen da ken baldin badugu San Juan Egoitzaren transferentzia bai jaso eta bai ematea, baina aurreko urtean hori Gizarte Zerbitzuen esfortzu bezala hartu behar da eta bere aurrekontuarekin konparatuta, %11a jaisten da, guri ...

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV): 2015ean sarrera ere badago (Mikronorik gabe)

Alex Oriden (EH BILDU): Bai, bai, badakit baina Foru finantzazioak ere badago handiagoa eta zea eta....



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Esfortzia eta nahi baldin baduzue elkartuko gara, begiratuko ditugu zenbaki guztiak eta zerbait oker baldin badago nik ez daukat inolako problemarik esateko: Begiratu ba... oker nengoen eta... baina gure zenbakiak hauek dira eta berdintasuna, aniztasuna eta gaztedia berez partida osoa %5ean jaisten da, ez dakit esan duzun igotzen den edo ez naiz akordatzen, apuntatzen egon naiz, baina % 5ean jaisten da eta kenduko bagenu pertsonal arloa, lehenengo kapitulua kenduko bagenu % 13an, 7.800 euroan, aurrekontua aurrekontuarekin konparatuta beti nik beste daturik ez dudalko eduki eta esaten dut zifrak, zorabio batean ibili gara egun hauetan eta denok ere auskalo, pentsatzen dut zu ere bai eta nahi duzunean bion artean konparatu ditzakegu,

Alkatea: Denbora gutxi izan duzue baina laburpen potoloa izan da eh?

Bai, bai

Atentziona deitzen dit emendakinak aurkezterako orduan ez duzuela esaten, esaten duzue zer dagoen gaizki, harritzen zaidana ez duzuela planteatzen hau igotzen dugu eta hemendik kendu ezazue, iruditzen zait lanketa bat egin duzuela igertzen da, datuak badakizue, esku artean daukazue, baina gero planteamenduak egiteko orduan ez duzue erabili nondik kenduko duzuen, errazena da esatea hemendik jaitsi duzue, bestetik jaitsi duzue, handik jaitsi duzue, egin behar duzuen da nola egin duzuen hausnarketa hain sakona eta detailatut emendakinak aurkezteko orduan kendu hemendik eta sartu hemen, iruditzen zait egin beharko zenuela,

M. Cruzek du orain hitza,

MariKruz Alvarez (EAJ-PNV), Hasteko Alex bota dituzu zenbaki pilo bat eta lehenengoarekin gelditzen zara baina apuntatzen hasten zarenerako laugarrena pasa zaizu, ez?

Nire informazioa usten dut hamabost eguneko antelazioarekin izan duzula, nik zurea ez daukat, baina zuk aurrekontua nire zenbakiak badauzkazu,

Zu ari zara begiratzen nik esplikatuko dizut gauza bat ez?

Aniztasuna adibidez ez? Hasten baldin banaiz hemen daukagu egotea gaueko hamarrak arte, ba... begira programa baten zenbakiak murriztea ez du esan nahi programa horretan zerbitzuak murriztu direnik, baizik eta badago gertatzea beste gastu batzuek murriztu direla, hau da, adibidez, aniztasuna eta berdintasuna, adibidez, ba... begira ze gertatu da hor? Onki-Xin proiektua, Onki-Xin proiektuan jaitsi egin da gastua ezta? Adibidez 5.000 €tan usten dut.

Ari naiz eta konturatu zaitez daukadala zenbaki pilo bat buruan eta ari naiz memoriaz hitz egiten, ez dakit, 5.000 bale!

Zergatik jaitsi da gastu hori? Zer usten duzu guk kendu dugula gastu hori eta laguntzat bat dela edo zertarako jaitsi da? Zergatik?

Begira, oso erraz esango dizut, berdintasuneko teknikariak beregain hartuko duelako gestio hori eta zergatik ez zen hori lehenagotik egiten?

Zergatik hartzen dugu enpresa bat gestio hori eramateko? Guk egitea daukagun bitartean? Hori adibide gixa

Adibidez, esaten dizut kudeaketa zorrotz eta zuzen bat eramateak ondorio batzuek dauzka eta ondorioak dira funtsezko eta orain arte errebisatu ez diren



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

gastu asko murriztea, bai? Programak horrela zer egiten dira: murriztu baina horrek ez du esan nahi errepikatzen dut zerbitzua murriztuko denik, horrek esan nahi du beste gastu batzuek murriztu direla,

Turismon adibidez, turismon % 50a jaitsiko dugu -publicidad y propaganda-zergatik? Era batera eskatzen zirelako argitalpenak eta guk argitalpenak berdin mantenduko ditugu baina nola negoziazio batzuek eraman ditugun aurrera murriztu egingo dugu gastua erdira eta horrela gauza asko, asko eta asko jarraikorak? Izan daiteke, gu duela sei hilabete gaude hemen, ez dena egingo da heldu eta esaten den bezala –a cuchillo- ez? Ba dauden gauzak, kendu ez?

Eta gainera dagoena gaizki egon behar al du ba?

Horregatik, jarraikorak? Izan daitezke baina diferentzi handi batekin gure kudeaketa iruditzen zait oso aktiboa izaten ari dela eta esaten dizut, eta lehenago esan dut eta berriro errepikatuko dut, niri iruditzen zaidana da lotsagarria da holako funtsezko gastu sinpleak begiratu ez izana eh? Adibidez, seguruak, argiak, horrelako gauzak begiratu ez izanak.

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Bai, bai, baina ari zara esaten zenbaki pilo bat eta ari zara esaten programa honetan murriztu egin duzue, bai, baina murrizpen hori zergatik izan da?

Gastua? Funtsezko gastu bat murriztu al da? Edo zerbitzua murriztu da?

Ez, ez, balorazio horiek egiteko orduan kontuz ibili behar da eta adibide gisa Onki-Xin proiektua daukazu, Onki-Xin proiektuan ze... zenbat urtetan? Zenbat urte doa Onki-Xin proiektua, ni baino hobeto jakingo duzue,

Ez dakizu? Bale...

Onki-Xin proiektua azpikontratatuta dago eta guk badaukagu ba... berdintasuneko teknikari bat, ze pasatzen da? Gestioa ezin du eraman? Eta orain bai? Orduan, iruditzen zait kudeaketa aktibo bat eramateak ondorioak dauzkala eta da gastuen murrizpena, baina ez zerbitzuena eta gu bide horretatik goaz, eh? Eta bestalde esaten nizuna harrigarria dena da gastu simple, simple askotan lortu dugun aurrezki, esan dituzun aurrezki garbia bakarrik lortu dugula ez dakit zer... fondo... hori ez da horrela ere.

Zuk badakizu 2017tik zenbat jaitsi den aurrezki garbia orain arte? Edo 2007tik, barkatu, badakizu? 2007an aurrezki garbia % 25ean zegoen, nahi baldin baduzu emango dizut historikoa zenbat jaisten joan den eta gu gorka egin dugu eta goraka gauzak ez dira aldatzen urte batetik bestea, goraka hasiera egin dugu eta aurrezki garbia esaten nizun bezala oraintxe bertan datua bilatuko dizut, porque ya ez naiz gogoratzen, baina aurrezki garbia % 25,16a igo da eta hori zer edo zergatik da, gainera aurrezki gordina begiratuko genuke kasu honetan, zergatik zuek hasierako aurrekontu horretan zorpetzen ez zenituelako, orduan horrek egiten du aurrezki gordina % 41,80 egoerarekin etortzea.

Eta bueno, esaten dizut, nahi badugu ondo landu hau, eta gainera iruditzen zait ona izango dela, hobe dugula gelditu zenbakiekin eta iruditzen zaitu zuek, gu mejoartzeko ideiak emango dituzuela baina baita guk ere zuei ba... erakutsiko dizkizuegula nondik datozen murrizpen horiek.

Bestarik gabe,



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Alex Oliden (EH BILDU): Gauza askotan ados egon naiteke baina honek demostratzen du gauza bat premia-premiazkoa dela lehenago aipatu duguna batzordeetan atalez-atal aurrekontuak ikustea, eztabaidatzea, begiratzea, konparatzea, ideiak jasotzea eta nik usten hemen garbi gelditu dela hori premiazkoa dela, ea datorren urterako hori lortzen dugun.

Bestalde, lehenago Oier esan duzunaren arabera, gure irizpidea izan da gure emendakinak ahalik eta onarterrazena izatea. Orduan erraza geneukan, ba... lora zaintza kentzea, adibidez, erraza geneukan baita ere gobernu organoen soldata kentzea baina ez zen guretzako errealismo puntua, ez zeukan errealitate punturik horrek. Orduan gure asmoa zen hori egitea.

Eta azkenengo puntua aurrezki garbiaren kontuan bilakaera 2012, 2013, 2014, adibidez egia da zuk esan duzuna 2007tik asko jaitsi zela gogoratu behar dugu ze garai bizi izan ditugun juxtu 2007...

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Barkatu, garai horietan sarrerak igo egin ziren

Alex Oliden (EH BILDU): Garai guztietan? 2007tik 2015era?

M. Cruz Alvarez (EAJ-PNV): Bai barkatu, garai txarretan Zapateron laguntza izan zenuten eta ederki etorri zitzaizuen, eta sarrerak garai horietan igo egin ziren,

Alex Oliden (EH BILDU): Nik bakarrik 2012, 2013, 2014ko aurrezki garbia...

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Eta nik 2007tik esaten ari naiz,

Alex Oliden (EH BILDU): Bai, bai, baina 2011an krisiaren gordinenean, hondoa jo zen garaitik, 2012, 2013, 2014an, igoera aurrezki garbian orain buruz ari naiz, kalkuladora ez dut hartu nahi, baina 2012tik 2013ra %50a baino gehiago, eta 2013tik 2014ra % 150a baino gehiago igo zen aurrezki garbia eta hartu dudana datua izan da udal gidatik, diputaziotik,

Alkateak: Hitza nik ematen dut eh? Aurrera,

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Bakarrik nahi nuen esan garai horretan sarrerak FOFIM-arenak beti udalari ematen zionak hurrengo urtean itzuli egin behar izaten ziren. Hori alde batetik eta bestetik Zapateron diru laguntzak izan ziren bi urtetan, oker ez banago kobratu zen milioi eta bostehun edo antzeko, milioi eta berrehun, baten 800, 900 eta beste baten gutxiago eta diru hori erabili zitekeen bakarrik inbertsioetarako, eta inbertsioak noski egin zirela eta ikusten baduzu bi urte horietan zenbat gastatu zen inbertsioetan ikusiko duzu beste edozein urtetan ez dela gastatu, zeren 10 milioi euro gastatu ziren inbertsioetan, eta gainera buruz



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

esango dizut, adibidez, zubi txikia, jadarreko igogailua e.a., larretxoko surf lokala, ez daukat hemen zerrenda baina horrela dozena bat obra potente oxford bera, pila bat, esaten dizut 10 milioi gastatu ziren inbertsioetan.

Ikusi nahi baduzu gero ea ze urtetan gastatu den hori inbertsioetan eh?

Alkatea: Eta gastatu baldin bazen izan zen 2007an zuek udala hartu zenuelako zortzi miloi eurokin bankuan, En Cash jaso zenuen zazpi milioi, zazpi milioi en metalico zenezkaten, Orduan normala da gastatu ahal izatea eta gastatzea posible izan bazenuen, ba... lehenagotik egin zen kudeaketa zorrotzaren ba... isla izan zelako, aurrezki bat egin zelako.

Zuek hartu zenuen zazpi milioi....

Alex Oliden (EH BILDU): Langileengatik ere asko asko egiten ari zarete

Alkatea: Bai, zuek zazpi jaso zenituzten eta guk bat eta erdi, eta lehenengo bi hilabeteetan 700.000 € jadarreko hormako kreditu gerakinetik, o sea, atera behar izan genuen gerakinetik atera behar izan genuen.

M. Cruz Alvarezeri pasako diot hitza,

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Nik bukatzeko nahi dudana esan inbertsioak egitea ez duela azkenean islada ez duela aurrezki garbian, ulertzen didazu?

Azkenean aurrezki garbia da inbertsioetako ematen dizun posibilitatea eta jaso bazenuen inbertsioetarako berdin zait, azkenean aurrezki garbia murrizten bada zer edo zergatik da, ez?

Iruditzen zait plantila %50a amentatu zelako, balorazioak ere... bueno badaukagu hausnarketa sakon bat egitea, esaten dizut, baina aurrezki garbiaren murrizketak ez dauka inbertsioekin zer ikusirik, azkenean hor dagoena da 1, 2, 4 gastuen handitzeak,

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Nik ez dut esan inbertsio (Mikrofonorik gabe)

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Esan duzu inbertsioak ere egin zirela.

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Esan dut inbertsioetan 10 milioi euro gastatu zela, aurrezki garbia ez dut aipatu, eh? Ez dut uste behintzat, ez dut aipatu

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Bai, baina azkenean aurrezki garbia da, aurrekontu batean aurrezki garbia da indikadorea, azkenean ezta?



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Aurrezki garbiak ematen dizu inbertsioetarako ahalmena ez?

JOSEBA JOSU AZPIAZU, Bai, bai

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Aurrezki garbia gehi sarrera kapitalezkoak ez?
Orduan aurrezki garbia murrizten joaten baldin bada, azkenean hori zer da?
Kudeaketa zuzen bat?, niri ez zaitu iruditzen

Alex Oliden (EH BILDU): %150 a igo zela! orain dela bi urtetik orain dela urtebetara

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Eta diru sarrerak obretakoak eta ikusi al dituzue?

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Eta aurreko urteetan zer pasa da?
Bueno ba... goazen guztion artean aurrezki garbi hori... handitzea

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Urte horietan ikusi al duzu bigarren kapituluko sarrerak, obrenak? Urte horietan bigarren kapituluko sarrerak obrenak, ikusi dituzu?
Ez, ez ez hasi begira, baina neuk esaten dizut

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): hementxen dauzkat denak,

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Nik esaten dizut murriztu zirela pilo bat
Eta beste gauza bat aurrezki garbi hau 300 eta pico mila euro igo duzue eta FOFIM-a zenbat kobratu da gehiago, FOFIM-a? 400 eta pico! eta horrekin bakarrik igotzen da, nahiz eta gasturik murriztu ez horrekin bakarrik igotzen da,

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV): Barkatu eta zuek azken urteetan ikuskaritzaren ondorioz, zenbat ingreso gehiago eduki dituzue? Nik usten dut FOFIM-a....

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU) Azken legealdi honetan? ni ez naiz egon (Mikrofonorik gabe)

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV), ba... horixe, ba... horixe Orduan iruditzen zait, bai... FOFIM-a bai, jaso dugu FOFIM-a bai! Ez dizut esaten ezetz, baina zuek ere beste alde batzuetatik ingreso extra mordo bat jaso dituzue eta gainera horren adierazgarri da dauden aurrekontuak, ni azkenean zein da indikadorea aurrekontuetan? Aurrezki garbia, ez?
Ba... niri horrek aurrezki garbia eta aurrezki gordinak dena esaten dit. Niri eh?



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

Esaten dizut, agian egoten garenean esplikatuko didazu zure ikusteko modua eta niri iritzia aldatzen duzu, nik momentuan indikadore horiekin gelditzen naiz.

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): Nik bakarrik esan dut aurrezki garbia kasu honetan FOFIM-aren igoerarekin bakarrik aurrezki garbia ia askoz ere handiago dela beste ezertxore egin gabe ere, beste ezertxo egin gabe.

Arritxu Marañon (ES-SV): No, va a ser muy breve que yo creo que lo vamos a agradecer todos además, pero ya que no he abierto la boca en todo el pleno, si por lo menos brevemente para fijar posición de que es lo que vamos a hacer el partido socialista y el por qué.

En primer lugar, señalar que efectivamente estamos hoy aprobando los presupuestos creo que la labor ha sido realmente encomiable, que ha sido un esfuerzo fundamentalmente que yo creo que de M. Cruz y real y yo creo que hay que reconocerlo y es de justicia y a su vez decir y pedir también que para próximas ocasiones entiendo que somos todos nuevos y que más allá de otras cuestiones pero nos quedan tres años por delante y tengamos más tiempo para trabajar los presupuestos, trabajar las enmiendas, leerlas y demás porque efectivamente ha sido un trabajo muy, muy complicado.

Pero dicho esto señalar también una serie de cuestiones, vamos a votar a favor y vamos a votar a favor siguiendo el programa que habíamos presentado, nuestro programa para las elecciones que hace hincapié en cosas tales como por ejemplo en temas de inversión referencia a un barrio como es el de San José que llevamos siguiendo desde hace muchos, muchos años y parecía que era el gran imposible dentro de Zumaia y por fin se va a hacer realidad y para nosotros como grupo socialista es muy importante, efectivamente además también la continuación del saneamiento de Artadi que se inició en la anterior legislatura pero que va bastante lento y también con sus retrasos importantes y continúa con una inversión importante además, como en el mismo sentido las nuevas inversiones para el estudio de la accesibilidad en Larretxo y demás,

Otra de las cuestiones en las que hacíamos hincapié era que era importante para nosotros por las épocas, en las que estábamos atravesando por la crisis económica fundamentalmente la elaboración y la creación de partidas relacionadas con la creación de empleo en ese sentido la generación de esta nueva partida para el presupuesto de este año nos parece bastante... muy importante y la tercera parte que defendíamos era la importancia de todo el tema de acción social, precisamente en los tiempos que corre y en los que hemos estado atravesando no? pues tratar en la medida de lo posible de fomentarlos y de hacer hincapié en ello y vemos en las partidas de este año que así se refleja,

En ese sentido simplemente hacer mención porque el grupo de Bildu había presentado enmiendas parciales a las que hemos votado en contra en primer lugar porque no defendemos el tema de endeudamiento a la hora de aprobar enmiendas, pero bueno... esto son cosas ya como grupo, creemos que cuando se hace un presupuesto en la manera que incrementas algo tienes que disminuir de otro lado, pero poco puedo decir porque me podéis contestar – oye que tú no has presentado ninguna- o sea que... pero sí quería señalar alguna cosa más,



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

La primera, efectivamente ha señalado el alcalde que se recogerá en la partida, en una de las partidas de estudio la posibilidad para hacer con el gazte lokala, gaztetxola y demás y esperemos que a lo largo de este año pues vayamos viéndola a través de las comisiones y demás y se le vaya dando una salida porque ya lleva dando vueltas el tema,

Respecto al incremento en servicios sociales, hemos dicho que no pero por una razón se incrementa en una manera importante el presupuesto de esta año en esa materia, pero es que realmente viene el nuevo mapa de servicios sociales a futuro y yo creo y ahí nos vais a tener porque no va a ser un incremento de 20.000 € sino que va a ser un cambio de marco muy muy importante y desde luego en ese aspecto el partido socialista de cara a presupuestos posteriores porque van a llegar, porque llegan finales del 2016 -17 pues ahí estaremos y para acabar con el tema en este caso de "Hitza" pues también recoger las palabras de Oier del alcalde diciendo que lo va a mirar y que vas a estudiar realmente cuales son los ingresos, la manera de generar los mismos y hacer una comparativa respecto a los municipios de alrededor no? , pero que no sea esa rebaja de manera así aleatoria sin más, y en ese aspecto también vamos a estar atentos al respecto y que se actúe con justicia como así lo esperamos, y sin más nada terminar, hablar lo más recogido posible pero marcar la posición hoy respecto a todo y gracias,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 6 boto (6 EH BILDU)

Abstentzioak:

ERABAKIA: 2016. Ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dira

3.- PROPOSAMENA:

3.1.- ZUMAIAKO UDAL MUSIKA PATRONATUA DESEGITEKO HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

**MUSIKA PATRONATUAREN IZATEAREN BURUZKO
KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA**

AURREKARIAK:

A1) Ofizioz ikuskatu da kontu-hartzailetzatik, patronatu honen izatearen egokitasuna, batez ere azken urteetan gertatu den aldaketa arauemailegatik,

Patronatu honek adskribatutako pertsonala ez izatea, eguneko kudeaketaren arduraduna den pertsona, berez, Udalaren funtzionarioa izatea, eta bestalde aurrerago aipatzen ditudan araudiak, kontuan hartu dira txostena egiteko.

Patronatuak bestalde urtero aurrekontua propioa du, berezko kreditu aldaketak egin behar zaizkio, berezko aurrekontuaren likidazioa egin behar zaio, kontabilitate presupuestario eta aurrekontuz kanpoko kontabilitate propio ere eraman behar du. Hau dena, beharrezkoa ez den karga administratibo handia sortzen digu, eta patronatu izaerak ez dio inongo onurarik ekarri Udalari, Kulturako teknikariak esaten duenaren arabera. Honek dio musika jarduerak berdin-berdin kudeatu daitezkeela, Udalean bertan osorik kudeatzen bada, patronatu izaerarik gabe.

A2) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUA :

65. artikulua. arabera Kontuhartze-kontrola toki erakundeak bere jardura ekonomikoaren eta bere menpeko erakundearen gainean ezartzen duen barru kontrola da; kontrol hori titulu honetan ezarritakoaren arabera burutuko da.

66. artikulua. Kontrolaren helburuak eta kontrol-moduak.

1. Lortu nahi diren helburuen arabera, kontrola honelakoa izango da:

a) Legezketasunaren kontrola, jarduketa ekonomikoak indarreko arautegiaren arabera diren egiaztatzeko.

b) Eraginkortasunaren eta efizientziaren kontrol ekonomikoa, jarduketan ekonomi moldaketa hala egitaraupeko ekintza eta helburuen ikuspegitik, nola prozesuari datzekion kostuaren ikuspegitik aztertzeko.

c) Finantzen kontrola, finantzen eta kontabilitatearen arloko informazioaren fidagarritasuna eta informazio hori identifikatu, ebaluatu, sailkatu eta jakinarazteko erabilitako eskuartearen fidagarritasuna eta osotasuna aztertzeko.

d) Antolaketaaren kontrola; eragiketa ekonomikoetara doazkien antolaketa eta administrazio sistemen egokitasuna, bereziki, toki erakundearen aktiboen babes-balioztatu eta udalaren organo eta erakundearen sorkuntza eta ezabaketa, bai eta beren berregituraketak fiskalizatuz, beraien zerbitzuen kostu eta etekinen .

A3) Abenduaren 27ko, arrazionalizazioko eta Toki-Administrazioaren iraunkortasuneko 27/2013 legea.

Lege honek aurrekarietan dio:

"Konpetentzia lokaleko zerbitzu publikoak era iraunkorren eta eraginkorren kudeatu behar izango direla. Efektu hauek, bilduko da, apirilaren 27ko, Aurrekontuzko Egonkortasuneko eta Iraunkortasun Finantzarioko 2/2012 Lege Organikoko 4. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, planteatutako proposamenen iraunkortasun finantzarioa balioetsiko duen Tokiko kontu-hartzailearen txostena.

A4) Apirilaren 27ko, 2/2012 Lege Organikoko Aurrekontuzko Egonkortasuneko eta iraunkortasun Finantzarioko dio

a) 4. artikulukoan: iraunkortasun finantzarioko printzipioa

1. Administrazio Publikoen jarduerak eta Lege honen aplikazio-eremuan ulertutako gainerako entitateak lotuta egongo dira iraunkortasun finantzarioaren hasieran.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

2. Iraunkortasun finantzarioagatik ulertuko ditu gastuaren konpromiso oraingo eta etorkizunekoak defizit-mugaren barruan finantzatzeko ahalmena eta zor publikoa, Lege honetan eta Europako araudian ezarritakoaren arabera.

b) 7 artikulua .Eselepeneko efizientzia printzipioa eta baliabide publikoen erabilera.

7.2. Baliabide publikoen kudeaketan emango da efikazia, **efizientzia**, ekonomia eta kalitatea, gastuaren arrazionalizazioko eta sektore publikoaren kudeaketaren hobekuntzako politikak zeinen helburuan aplikatuko diren, orientatuta.

A4) 2015eko urriaren 10ean Musika patronatuaren disoluzioaz idazkariak egindako txosten juridikoa, non azaldu zuten disoluzioaren pausuak.

Eta non esaten duen:

"Musika Patronatuaren Estatutuak, arau mailari dagokionean, reglamento arau-maila duenez gero, disolbatzeko prozedurak 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako tramierei eutsi beharko dio, hau da, Osoko Bilkuraren hasierako onarpena, aipatu gehiengoarekin, 30 egunez jendaurrean, eta epe horretan alegazioarik egotekotan Osoko Bilkurak erabaki, edo ez baleude behin-behineko erabakiak behin betiko izaera izango luke; nolahi ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera iragarkia ezinbesteko tramitea da."

A5) Kulturako Teknikariaren iritzia:

Aurretik Kontu-hartzaileak honako hau idatzi zion Kulturako teknikariari 2015eko otsailaren 18an:

"Nire ikuspuntutik ere, ez du zentzurik Musika Patronatuaren izaera, pertsonalik ez duelako eta lan karga bikoizten digulako, nik disolbatuko nuke lehenbailehen, eta bere eginkizunak, Udaletik beteko nituzke zuzenean. Jakin nahiko nuke zure iritzia gai honetaz."

Eta Kulturako teknikarioak hau erantzun zion Kontu-hartzaileari 2015eko otsailaren 19an:

"Zurekin erabat ados. Lankidetzaz bultzatzeko ez da behar egitura hori."

A6) BETEAN, 2011an egindako auditoria txostenak diona:

Hala, Patronatuaren jarduera, funtsean, diru-laguntzak ematera mugatzen da eta ez du langilerik. Baina, hura egoteak Udaleko langileen administrazioko lan-karga areagotzen du indarrean dagoen aurrekontu-araudiak exijitutako baldintzak bee ahal izateko, aurrekontua prestatu, onartu, gauzatu eta likidatzeari dagokionez.

Diru-laguntzen kontzeptuan erregistratutako gainerako gastuei dagokienez, zuzeneko diru-laguntzak dirá, izendunak aurrekontuan, eta ez dago hitzarmen arautzailearik onuradunen eta Patronatuaren artean.

Aurrekontua Gauzatzeko Arauan ezarrita dauden kredituen lotespen juridikoaren mailen arabera, lotespen-maila batzuetan gastu baimenduak gairiditu egin du aurrekontu-esleipena II.kapitulua barruan, guztira 7.138 euroko zenbatekoaz.

Aurreko oharren arabera, honako hau gomendatzen dugu:

- *Musika Patronatua desegiteko eta haren jarduerak Udalean bertan barne hartzeko aukera aztertzea.*

ONDORIOA:

Musika Patronatuaren existentzia, gaur egun, alde batetik ez du betetzen **efizientzia** printzipioa, gauza bera egiteko, kostu administratihoa asko gutxitu daitezkelako eta bestetik, egunerokotasuneko ekintzen eta jardueren kudeaketan ez duelako inongo abantailarik.

Beraz kontu-hartzaile naizen honek, proposatzen dut, Osoko Bilkurak, Musika Patronatua disolbatzeko erabakia hartu dezala lehenbailehen.

Zumaian 2015eko abenduaren 23an.



Alkateak gai honen inguruan gobernuaren jarrera zein izan den azaldu du: Azaroko Ezohiko plenoan sartu zutela gaia -udal teknikariek hala gomendatuta-, izan ere, aurrekontuei begira, 2016ko aurrekontu horietan sartu beharko zuketean, eta lana bikoiztu egingo litzake bai kontu-hartzailetzan eta baita ere idazkaritza aldetik.

Presazko erabakia izan zenez batzorde batean hitz egin zen gai honi buruz, elkarrekin biltzeko aukera ez zutela izan, bakarren batzuekin egon zirela eta azaldu zitzaizkien zein zen arrazoia, arrazoia ez zen beste erabaki politiko bat izan, batez ere teknikariek eta aurreko legealditik zetorren erabaki edo proposamen bat zen aurreko udal gobernuari ere helarazi zien desegitearen arrazoia zein zen eta esaten dutenez teknikariak aurreko udal gobernuak ontzat ematen zuten deuseztatzearena aurrera eramatea, eta gauza horrela izan zen eta bi egun lehenago pleno gai zerrendan sartu zutenean elkarrekin batzuen inguruan halako kezka bat sortu zen, zer gertatzen ote zen musika patronatuarekin; horregatik saiatu ziren lasaitzen edo transmititzen lasaitasun bat azkenean estruktura huts bat dela ez daukala bizi propiorik, ez dauka pertsona juridikorik eramaten duena, kirol patronatuan gertatzen den bezala, eta jarduerak ez zuela izango inolako eraginik; hori izan zen bezperako egunean eta kultura teknikarien aldetik horrelako kezka bat helarazi zien udaltaldekiei eta esan eta bezala batzorde batean, kultura batzordean komentatu zen gai hau eta esan zitzaizkien talde politiko guztiei, sozialista eta Bilduri ezer baldin bazuten ba... deitzeko lasai eta behar ziren azalpenak emango zituela udal gobernuak gai honen inguruan; udal gobernuaren asmoa izan zen partidu politiko guztien artean ontzat ematen baldin badute desegitea patronatu hori, lasaitasun bat emango zuelako musika patronatua osatzen duten elkarrekin guztiengan.

Bilerara deitu zuten plenoa baino ordubete lehenago eta saiatu ziren denon babesarekin aurrera eramatea, Bilduk ezetz esan zuten eta horren aurrean gai zerrendatik ateratzea erabaki zuten Alkateak berak.

Alkateak esan du gai honen inguruan baita ere berriz azaltzen dela, Bilduren jarrera, hau da, elkarlanerako grina azaltzen du publikoki, baina gero udal gobernuak akats bat izan duenean eta akats horren ba nolabaiteko zabaltzeko babes eskatzen duenean modu adostu batean, guztien artean plenotik pasatzeko, halako adierazpen batzuk egin ditu EH BILDUK gero egunetara esanaz klara bi herenak behar direla aprobatzeko eta abar; eta horrelako jokoan sartu da Bildu oposizioa egiteko orduan eta Alkateari ez zaio oso gustukoa iruditu, hau da, uddal gobernuan larritasun egoera bati nola etekina aterako dion EH BILDUK.

Honen aurrean udal gobernuak bilerak egin ditu elkarrekin guztiekin batera, bilera batean hamar minutu nahikoa izan zen guztiek bat egiteko beraien proposamenarekin eta gaur ekarri dutela plenora inongo batzordetik pasa gabe, aurreiazko batzorde hartan esan zena baino gehiago ez dutelako ezer esatekorik.

EH Bilduk publikoki gustuko izan du halako brillo protagonismo bat azaltzea, klara bi herenak behar dituelako udal gobernuak aurrera ateratzeko eta orduan orain hementxe ikusi dutelako aukera udal gobernu honi astindu bat emateko.



Zumaiako Udala

2015IAKU0012-005-002

Elkarte guztiak ontzat eman dute, alderdi sozialistak lehenengo bilera batzorde hartatik lehenengoan ulertu zuen, konfiantza bat du udal gobernuan, beraiek esandako argudioei zilegitasuna eman dio, Bildurentzat itxura denez, ba, ez duena. Alkateak esan du ez zela egon lehenengo batzorde horretan, baina bai egon zela musika patronatua osatzen duten elkarte guztiekin eta hamar minutu nahikoa izan ziren denok pleno honetara iritsi adostu batekin etortzeko eta bozkatzeko; eta behin baino gehiagotan esan izan dela "idiak eta gurdiak" eta baina beraiek, idiak badakitela non dauden eta gurdiak ere bai, baina Bilduk azkenengo zortzi urte hauetan ez dakit non izan dituen, gurdiak eta idiak; bukatzeko esan du txosten bat dutela kontu-hartzaileak egin duena, kultur teknikariaren babesarekin duela urtebetekoa; gai hau tratatu zuten teknikarien artean eta hortik hartutako txosten bat dagoela, zertan oinarritzen den patronatu hau desegitekoaren arrazoiak, arrazoi teknikoak direla.

Ione Mugerzak (EH BILDU) prestatutako testua irakurri du:

"Gure botoa plazaratu baino lehenago, hausnarketa bat egin nahi dugu. Bigarren aldia da Musika Patronatua desegitearen gaia osoko bilkuren deialdietan azaltzen dela. Lehenengoan, azaroak 19koan, azken momentuan deialditik kanpo gelditu zen, behar adinako babesak ez zuelako lortuko eta eragile guztiak jakinen gainean ez zeudelako, Udal Gobernuak bere 2015eko azaroaren 27ko prentsa agirian aitortu zuen bezala. Hilabete baino gehiago pasatu da eta zenbait galdera erantzunik gabe daude oraindik: Zergatik ez da, denbora tarte horretan, Musika Patronatuko Zuzendaritza Batzordea deitu? Zergatik ez da, denbora tarte horretan, Kultura Batzorde Informatzailerik egin? Badirudi azaroaren 25ean Udal Gobernuak musika eragile guztiekin bildu zela eta adostasun batera heldu zirela denak. (esan duzun bezala) Zergatik ez zitzaion Kultura Batzordean ordezkariak izan talde politikoetako kideei bilera horretarako gonbitea luzatu? Zertan datza bilera horretan eragile guztiek, itxura guztien arabera, sinatu zuten agiria? Zergatik Udal Gobernuak bera bakarrik ari da erabaki garrantzitsuak hartzen, legez gainontzeko ordezkariak guztioi dagozkigun bilera, informazio eta prozedurak ukatuz? Zumaiako EH Bilduk, bere aldetik, saiatu da ahalik eta eragile gehienekin biltzen, eta egiaztatu du Musika Patronatua desegitearen aldeko erabakiarekin ados daudela. (zuk aipatu duzun bezala) Hori guztiagatik, erabaki hori gauzatzearen aldeko bi boto emango ditugu eta kontrako lau. Ez dugu oztopo izan nahi eragileen iritziz zuzena den erabaki baten aurrean, denborak esango digu Udal Gobernuak beraiekin hitz emandako konpromisoak beteko dituen edo ez. Espero dezagun, Zumaiako Musika Patronatua desegiten bada, gutxienez, musika gaiak aztertuko diren bilera zehatzak egitea eta zinegotzi guztiei informazioa ematea. Zumaiako EH Bildu udal taldea, 2015eko abenduaren 30ean"



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Jon Iraolak (EAJ-PNV) gogoratu du bideotxo zoragarri bat atera zuela lone Mugerzak esanaz Josebak Azpiazuk zuzenki esanaz hausnarketa sakon bat merezi zuela hau desegiteak eta abar; berari iruditzen zaio gaur arratsaldean Miriamekin –Kultur Teknikariarekin- hogei minutu gaur goizean ibiltzea telefonoz ez dela inongo hausnarketa sakonik egitea eta iruditzen zaiola hasieran ezezkoa eman zuela EH BILDUK erderaz esaten den bezala –para dar por culo-; izan ere, hamar minutuko bilera baten ulertu zuen Arritxu Marañonek 10 minututan, hemen dago idatzita kultura batzordean, lone Mugerzak gainera kontatzen zuela zalantza batzuk ziutela eta dokumentazioa irakurri eta egingo zutela; esan zitzaie inolako zalantza, duda edo problema baldin bazuten MariKruzek esan duen bezala beste gai batzuetan, deitu, etorri, elkartuko direla; eta hala ere “ni caso- - ni caso- “ , Ez zenuten kasurik egin ez deitu, ez Miriamengana etorri, ezer ere ez, orduan ez duela ulertzen, zein duda, zalantza-edo izango ote duten.,

lone Mugerzak (EH BILDU) Miriamekin hitz egin duela.

Jon Iraolak (EAJ-PNV) ondoren, badakiela aurrerago egin duela.

Jone Mugerzak (EH BILDU) esan du aspaldi hitz egin zula Miriamekin

Jon Iraolak (EAJ-PNV) arraro xamarra iruditzen zaiola nolatan hamar minututan jende guztiak ulertu duen gauza bat, hausnarketa sakon bat behar duela esatea eta orain hilabete pasatu eta badirudi egin dutela hausnarketa sakon hori....

lone Mugerzak (EH BILDU) esan du berari ere arraroa iruditzen zaiola batzorderik ez egitea,

Jon Iraolak (EAJ-PNV) esan du musika patronatuaren batzorde berezia egin zutela eta batzorde berezian etorri edo ez etorri beste asunto bat dela, eta aktan jasota dagoela eta alderdi guztiek sinatuta eta osatzen duten eragile guztiengatik

Joseba Josu Azpiazuk (EH BILDU): ez dutela hori jaso.

Jon Iraola (EAJ-PNV): abenduaren 25ean egin zutela bilera,

lone Mugerzak (EH BILDU) esan du beraiei ez zitzaie luzatu gonbitea,

Alex OLIDENek (EH BILDU) Musika Patronatuko Zuzendaritza batzordean,....

Joseba Josu Azpiazuk (EH BILDU): lone eta bera kide direla esan du.,

Jon Iraolak (EAJ-PNV): Batzorde berezia...



Ione Mugerzak (EH BILDU) batzorde berezi horretan zeba ez daude inbitatuta, galdetu du; ea zeba ez dauden musika batzorde edo bilera horretan edo... zeba ez den egin batzorderik eta gero aparte hori zeba ez dauden inbitatuta bera eta Joseba, eta Arritxu egon zen edo ez, ez duela oso ondo ulertzen. Beste galdera egin du: ea zeba ez den egin batzorderik honi buruz hitz egiteko, honi eta hainbat gauzei buruz, gabonetan baitgaude dagoeneko eta berak usten du kulturak batzorde bat behar duela eta ez da egin, Zain dagoela eta galdetu du ea asmorik dagoen egiteko edo ez, eta ez daukala erantzunik Miriamekin hitz egin ondoren.

Joseba Azpiazuk (EH BILDU) galdetu du ea hitz egin dezakeen.

Alkateak esan du txandak errespetatu egin behar direla eta eskatu die zinegotziei errespetatzeko bata besteari hitz egin behar dutenean.

Jon Iraolak (EAJ-PNV) esan du Alkateak esan ziela batzordeak zergatik ez diren egin, izan ere lehenengo batzordean esplikaturakoaz aparte ez zegoelako ezer berririk gehiago esplikatzekorik; eta eguberrikoa urtarrilean egingo dutela batzorde bat.

Ione Mugerzak (EH BILDU) esan du batzordea egiteko gai bat badela, iruditzen zaie musika patronatuko kideekin hitz egin behar dela ea zer pentsatzen duten beraiek, eta gero pentsatzen dutenaren arabera eta teknikariak esaten duenaren arabera, zeren EH BILDUK esan du apoiatu egingo dutela baina usten dutela hitz egin behar dela beraiekin, eta ea beraiekin hitz egin duten galdetu die gobernukideei; ez zaiela abixatu horra juteko, ez dietela gonbita luzatu. Behintzat batzorde bat egin esateko hitz egin dugu beraiekin, hau hola eta hola dago eta zeba ez dugu lanketa bat egiten, o sea, zeba ez dugu hitz egiten eta denon artean erabaki bat hartzen.

Alkateak esan du gai honen inguruan, bilera hori antolatu zela, eta antolatu zen EH BILDUKin hitz egin beharrekoa hitz egin zelako eta ez zegoen beste ezer gehiago hitz egiteko, eta EH BILDUK esaten duen hausnarketa hori da estuktura hutsal bat, ez dauka inongo edukirik, hau da, EH BILDU ari da hitz egiten hausnarketa musika inguruan, o sea, bilerak, batzordeak igual igual jarraituko dute egiten udal teknikariarekin eta zinegotziekin, ez dago Antton Alberdi bat musika patronatuan ez dago, orduan kentzea da gauza estuktural bat, hutsa, orduan egitea magnifikatzea esanez hausnarketa sakon bat egin behar dela eta idiak non dauden eta gurdiak, aipatzea ez du zuzena ikusi. Eraginkorrak izan behar direla guztiak eta teknikariei lan karga ahalik eta gehien kentzen saiatu behar direla denon artean; baina jarrera hori politika dela, hau da, egurra emateko udal gobernuari gai hau erabiltzea eta ez zaiola ondo iruditzen, besterik gabe ekarri dutela pleno honetara jakin gabe EH BILDUK alde edo



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

kontra botako duen baina udal gobernua elkarte guztien on iritzia dutela eta hamar minutu nahikoa izan zela beraien on iritzia jasotzeko eta Arritxu Marañonen on iritzia jasotzeko ere bai, baina Bilduri dirudenez ez zaio nahikoa udal gobernua emandako esplikazioa, jakin da aurreko gobernua horako pausoa emateko asmoa zeukanik, ez zutela espero EH Bildun horrelako frontoi bat aurkituko genuenik, orduan frontoia nola aurkitu den gai honen inguruan zertarako gonbidatuko dituzte? Zertarako? Oztopo bat izateko? Hamar minutuko bilera hori bi orduetara luzatzeko? Edo zein da helburua bilatu nahi dena gai honen inguruan? Alkateak iritzi du ezerezetik EH BILDUK arazoa sortu nahi duela, ez dagoela liskar sozial bat musika patronatuaren inguruan, ez dagoela inongo arazorik, eta azkenik galdetu du sortu ote nahi dituen EH BILDUK.

Ione Mugerzak (EH BILDU) esan du gauzak ondo egin behar badira hasieratik egin beharko dituztela guztiek, eta puntuak jartzen denean batzordean, puntu zehatz bat jarri beharko dutela.

Joseba Azpiatzuk (EH BILDU) esan du, bi kultura batzorde egon direla bigarrenaz azaroan, kasualitatea gainera berak baietz esan eta gero ezin izan zuela joan izan, arazo pertsonal batengatik, hori hala izan zen, deialdian jartzen zuen musika patronatuaren hausnarketa, berak ez duela asmatu hitza, - hausnarketa- jartzen zuela, eta hortaz, berak usten zuela hausnarketa bat zela. Halako batean enteratu zela hurrengo egunean, ez zela hausnarketa, ia zela desegitea eta beste informaziorik ez zeukatela inondik, inondik inora, berak ez zekiela ezer, gaur enteratu dela, aste honetan hobeto esan da aurreko legealditik datorren gauza bat dela, baina berak ez zekiela.

Gero, plenora ekarri zen, batzorde horretatik, ez zeukatela informaziorik eta beraien nahi zuten gauza bakarra zen jakin musika patronatuko taldeen iritzia, besterik ez, musika patronatua konbokatuta bazenute eta han ikusiz gero denok ados zeudela, beraien ez zuketela hitzik esango, onartu eta puntu, bereiek oztopatu ezer ere ez, beraien jakin beraien iritzia jakin nahi zuten eta hori esan zuela bideo famoso horretan, beraien iritzia nahi zuteela jakin eta berak usten zuela gero, kultura batzordean edo musika patronatua deituko zuela udal gobernua eta han aklaratu zela gaia eta puntu baina ez da egon, eta gero orain enteratzen direla musika patronatu berezia egon dela gainera, EH BILDUKo kideak egon gabe, hori da besterik ez.

Jon Iraolak (EAJ-PNV) gaia luzatzea absurdoa iruditzen zaiola esan du, suposatzen duela irakurriko zutela kultur batzordeko aktak, egun horretako akta irakurriko zutela eta jartzen duela batzordea deitzean azken denboran aipagai izan dugun musika patronatuaren gaia jarri zela. Etorkizunerako hausnarketa gisa baina azken orduan idazkaritzak egindako eskaera bat dela eta patronatuaren desegiteko arazoia-bideak landu zirela batzordean, o sea, ez da udal gobernua nahi izan zuelako hausnarketa jarri, beraien hori nahi zutela egin baina idazkaritzatik esan ziguten pausok jarraitzeko desegin behar baldin bazen, egun horretan egin behar zela hori, besterik gabe.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Hori usten duela oso argi gelditu zela batzordean eta orain hori buruz hitz egiten, dena azkar egin dela, ez dela errua, sartu dutela lehendik ez zelako ezer eginda, hori esan zuten, baina epeak hala baldin baziren eta idazkaritzatik esaten bazieten udal gobernua hamar minutuan ulertu zuen gauza tonto bat zela hor zegoena, orduan Ah bai! hala da! arrazoia daukazue esan zieten teknikariei eta desegiteko pausoak zeintzuk ziren adierazi zietela. Hori hala trasladatu zutela.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 9 boto [6 EAJ-PNV, 2 EH BILDU (Arritxu Iribar eta Josu Arrieta), 1 SV-ES]

Kontrako botoak: 4 boto (4 EH BILDU)

Abstentzioak:

ERABAKIA: Zumaia Udal Musika Patronatua desegiteko espedienteari hasierako onarpena eman zaio

4.-

ZUMAIAKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2. SISTEMA OROKORRAREN BARRUAN, SANTIAGO AUZOKO 3 ZENBAKIAN KOKATZEN DEN ERAIKINEAN, MUSEOA FRONTOI ALDERA HANDITZEKO XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2015EKO ABENDUAREN 22KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, Z ESPACIO CULTURAL IGNACIO ZULOAGAREN IZENEAN RAFAEL SUAREZ ZULOAGAK AURKEZTUTAKO ZUMAIAKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2. SISTEMA OROKORRAREN BARRUAN, SANTIAGO AUZOKO 3 ZENBAKIAN KOKATZEN DEN ERAIKINEAN, MUSEOA FRONTOI ALDERA HANDITZEKO XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1.- 2015eko urriaren 6ko 702/2015 zk. duen Alkatetza Dekretuz Z ESPACIO CULTURAL IGNACIO ZULOAGAREN izenean RAFAEL SUAREZ ZULOAGAK Zumaiaiko plangintzako Arau Subsidiarioetako
2. Sistema Orokorraren barruan, Santiago auzoko 3 zenbakian kokatzen den eraikinean, museoa



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

frontoi aldera handitzeko, aurkeztutako Xehetasun Azterketari hasierako onespena eman zitzaion.

2.- Aldez aurretik, gune horretako Plan Berezia onartu eta argitaratu zen 2007ko otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Era berean, museoa handitzeari dagokion kontsulta egin zen Gipuzkoako Foru Aldundiko, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuan eta aldeko txostena egin zuten 2014ko azaroaren 5ean.

3.- Xehetasun azterketaren berri 2015eko Urriaren 5eko Hirigintza batzordean berri eman zen.

4.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, horren berri eman zaio ingurukoei eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2015eko Urriaren 14.) eta zabalkunde gehien duen lurraldeko egunkari batean iragarkia argitaratuz (Urriak 9 DV, HITZA eta BERRIAN), 20 eguneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

5.- Jendaurrean izan zen epean bi alegazio aurkeztu dira.

Lehena: Daniel Carballo Ostolaza jaunak aurkeztua
Bigarrena: Ramón Suarez Zuloaga jaunak aurkeztua.

6.- Alegazioak espedientearen barne dagoen txosten tekniko-juridikoan (2015HPXA001) ezarritako arrazoiengatik ez dira onartuak izan.

7.- Irizpena jaso dezan Z ESPACIO CULTURAL IGNACIO ZULOAGAREN izenean RAFAEL SUAREZ ZULOAGAK Zumaia plangintzako Arau Subsidiarioetako 2. Sistema Orokorren barruan, Santiago auzoko 3 zenbakian kokatzen den eraikinean, museoa frontoi aldera handitzeko, aurkeztutako Xehetasun Azterketa aurkeztu da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2015eko Abenduaren 22an, ondorengo botoekin

Alde: Oier Korta (EAJ)
Jon Iraola (EAJ)
Arritxu Marañon (PSE)
Kontra: 0
Abstentzia: 0

Hirigintza Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Z ESPACIO CULTURAL IGNACIO ZULOAGAREN izenean RAFAEL SUAREZ ZULOAGAK Zumaia plangintzako Arau Subsidiarioetako 2. Sistema Orokorren barruan, Santiago auzoko 3 zenbakian kokatzen den eraikinean, museoa frontoi aldera handitzeko, aurkeztutako Xehetasun Azterketari behin-betiko onarpenera ematea.

2.- Daniel Carballo Ostolazak eta Ramon Suarez Zuloagak aurkeztutako alegazioak ez onartzea

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia 2015eko Abenduaren 22a
Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoko
Arduraduna



Alkateak gaia aurkeztu du.

Josu Arrietak (EH BILDU) esan du gai honetaz eztabaidatzeko, Hirigintza Batzordean azkenengo aldiz partaide guztiok bildu ahal izan zirenean azaroaren 23an aipatu zela Zuloaga museoaren eta Udalaren artean kultur hitzarmen bat sinatzeko aukerak aztertuko zirela. Izan ere, orain arteko harremanak hobetzeko bidean jartzeko modua ikusten omen zuen Gobernu Taldeak. Denon iritzia da interesantea dela, alde guztietatik begiratuta, Zumaian dagoen arte ondarea herritarrengana hurbiltzea, baina oraingoz ez dutela informaziorik bide horretan pausorik eman den ala ez. Informazio falta hori dela eta, beraien aukera ABSTENTZIOA izango delaa.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 6 boto (6 EH BILDU)

ERABAKIA:

1.- Z ESPACIO CULTURAL IGNACIO ZULOAGAren izenean RAFAEL SUAREZ ZULOAGAK Zumaia plangintzako Arau Subsidiarioetako 2. Sistema Orokorraren barruan, Santiago auzoko 3 zenbakian kokatzen den eraikinean, museoa frontoi aldera handitzeko, aurkeztutako Xehetasun Azterketari behin-betiko onarpena ematea.

2.- Daniel Carballo Ostolazak eta Ramon Suarez Zuloagak aurkeztutako alegazioak ez onartzea

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.



Zumaia Udala

2015IAKU0012-005-002

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria